



LENIOR ELORRIAGA

"Gure epaiketak herritarrek sentsibilizatu dituela uste dut"

Egoitz Lopez de Lacalleren (Otxandio, 1979) eta beste 46 euskal herritarren kontrako epaiketa astelehenean hasiko da. De Lacalle 2014an atxilotu zuten, Euskal Preso Politikoen Kolektiboko Bitartekari Taldekoen kontrako sarekadan, eta 12 urteko kartzela zigor eskaerari aurre egin behar dio. Denbora honetan jasotako babes keinuak eskertu ditu. "Elkartasuna lantzeko, jende asko lanerako prest dagoela ikusteak adorea ematen digu", dio. **2-3**

Herritarrengandik gertu egongo den udaltzaingoa helburu

Durango | Abuztuaren 1etik hona, Amaia Frontaura da Durangoko udaltzainburu berria. "Agenteak kalean ikustea eta herritarrengandik gertu egotea" gura duela azaldu du. Emakumezkoa den udaltzainburu apurrentariko da Frontaura. **5. orrialdea**



Mocker's-ek disko berria dakar, lehenengoa euskaraz

Musika | Plateruenean aurkeztuko dute gaur, 'Oreka Ahula', Sermond's elorriarrekin batera. **14. orrialdea**

DHEO DURANGO
Hizkuntza Eskola Ofiziala / Escuela Oficial de Idiomas

Matrikula zabalik
ON-LINE
1. fasea: irailaren 1etik 18ra
2. fasea: irailaren 18tik urriaren 3ra

PRESENTZIALA
Urriaren 23an

72,36€ ikasturte osoa
www.eoidurangoheo.hezkuntza.net
94 620 33 42 - 94 681 66 45

Hizkuntza eskolan?
Bai. Ikasi euskara / Ja. Lernen Sie Deutsch
Oui. Apprenez le français / Yes. Learn English





LEHIOR ELORRIAGA

LEHIOR ELORRIAGA

Egoitz Lopez de Lacalle
11/13 makroepaiketaren auzipetua
Otxandio | 1979

“Anakroniko berbak ondo definitzen du bizi dugun egoera”

11/13 Makroepaiketaren barruan, Egoitz Lopez de Lacalle otxandiarraren eta beste 46 euskal herritarren kontrako epaiketa hasiko da astelehenean, Madrilen

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Egoitz Lopez de Lacalle 2014an atxilotu zuten, Euskal Preso Politikoen Kolektiboko Bitartekari Taldekoen kontrako sarekadan. Bost urte geroago, hastear dago orduko sarekadan eta beste batzuetan atxilotutako 47 euskal herritarren kontrako epaiketa. Lopez de Lacalleri erakunde terrorista batean parte hartzea egotzen diote eta 12 urteko kartzela zigor eskaerari aurre egin behar dio, besteak beste. Auzipetu guztiak kontuan hartuta, 601 urteko kartzela zigorra dago jokoan.

Bost urte joan dira atxilotu zintuztenez. Zer animogaz heltzen zara epaiketaren atarira?

Bost urte hauetan gertatutakoa plano bitan bereiztu daiteke. Plano politikoa gauza asko gertatu dira harrezkero. Gure atxilotetak testuinguru konkretu batean izan ziren, gatazkaren konponbidearen hastapenetan geundela, oraindik ez zegoenean argi zer norabidetan joango zen. Ordutik hona, pausoak eman dira. Korapilo batzuk askatu dira eta beste batzuek oraindino badiraute. Tamalez, guri eragiten zigun korapiloak konpondu barik jarraitzen du oraindino. Arlo ho-

rretan ere, ordutik hona gauzak gertatu diren arren, presoan egoera ez dago konpondua. Konponbidean behar zuena konpondu barik egotea apur bat etsipenez bizi dut. Arlo pertsonalean, denbora honetan bizitza ez da geratu eta gutariko askok familia osatu eta seme-alabak izan ditugu. Seguruenik inor ere ez da egongo orduko egoera berdinean. Norbere egoerak eragiten du datorrenari aurre egiterako orduan, eta arduraz bizi dugu.

Epaiketa honi buruz iritzi publikoa eman dutenen artean, berba bat erreplikatu da besteen gainera: anakronikoa. Berba horregaz guztiz ados nago eta neuk ere erabili izan dut behin edo behin. Anakroniko berbak ondo deskribatzen du bizi dugun egoera. Gure egoera ez ezik, oraindino Euskal Herrian gertatzen ari diren hainbat gauza deskribatzeko

“**Badaude sektore batzuk garai bateko egoerara ainguratu gura gaituztenak eta aurrerabidea trabatzen dutenak**”

“**Babes handia jaso dugu. Onartzen dut beste batzuk baino eszeptikoagoa nintzela arlo horretan**”

ere balio du. Hau da, orain ia hamar-kada bat apustu serioa egin zen hermen-go gatazka egoera konpontzeko, eta jende asko bere borondaterik onenagaz bide horretan lanean hasi zen. Baina oraindino badaude sektore batzuk garai bateko egoerara ainguratu gura gaituztenak eta aurrerabidea trabatzen dutenak. Gure epaiketa horren adibide bat da, baina gehiago ere badaude: presoan egoera, arlo politikoko hainbat kontu... Gure epaiketa ez da kontu isolatua. Bost urte joan dira atxilotetak izan zirenetik, eta orduan gaintu guran genbiltzan testuinguru berean egongo gara astelehenean, Madrilen. Baina, tira, honek guztiak balio badu konturatzeko badaude sektore batzuk iraganen iltzatuta daudenak eta balio badu Euskal Herriko gizartea berriro aurrera begira ipintzeko, bada zerbaiz.

Gizartean eztabaida piztuta mantentzeko balio duela uste duzu?

Gure epaiketak presoen egoeraren gaia lehenengo planora ekartzeko balio dezake, eta arazo horri gizarte ikuspegi batetik erantzun behar zaiola ikusteko.

Auzipetuok denbora daramazue errealtate komun horri elkarrekin aurre egiten. Zer balorazio egiten duzu denbora honetan gizartearen aldetik jaso duzuen erantzunaren edo babesaren inguruan?

Babes handia jaso dugu. Onartzen dut beste batzuk baino eszeptikoagoa nintzela arlo horretan. Izan ere, azken garaiotan gaiak ez du behar besteko presentzia izan. Baina uste dut gure epaiketak sensibilizatu dituela herritarrek. Alde batetik, zergatik inputatu gaituzten galdetu diote euren buruari, eta, bestetik, ikusi dute ez dela horretarako momentua. Egoera beste gako batzuetan garatu beharko litzateke. Horrek guztiak, neurri batean, jendartea jaikiarazi egin duela uste dut. Auzipetuen herrietan mobilizazio handia egon da, bai herri batzarretan, bai martxan ipini diren dinamiketan... Alde horretatik, oso pozik nago.

Mugimendu horren erakusleio nagusiak zapatu honetan Bilbon egongo den manifestazioak izan behar luke.

Epaiketa astelehenean hasten da, eta manifestazioa lehenengo faseko amaiera edo inflexio puntu moduan planteatzen genuen, epaiketa aurreko dinamika sozial moduan. Baina astelehena ez da ezeren amaiera. Ondoren, beste errealtate bat hasiko da eta ikusiko dugu aurrera begira zelan aurre egiten diogun.

Auzipetuen jaioterrietan sortu diren dinamikak aipatu dituzu. Otxandion hainbat ekintza izan dira elkartasuna adierazteko.

Horretan ez nuen zalantzarik, baina, espero arren, berdin-berdin eskertzen da. Mugimendu handia egon da: sortu diren lantaldeak, garatu diren dinamikak... Otxandion beti mugitu da jendea niri zein nire egoeran egon daitekeen edonori laguntzeko. Herri bizia da. Hona etorri naizenetan jendea oso gogaituta ikusi dut egoera hau dela eta, "zer da hau, nahikoa da!" esanez. Arlo pertsonalean, horrek indarberritu egiten nau.

2001ean, Segi-Haikaren aurkako operazio baten barruan atxilotu zintuzten. Lau urte egin zenituen behin-behinean preso. Testuinguru hartan, beste epaiketa bat bizi izan zenuen. Esperientzia hark balio du gaur egungoari aurre egiteko?

Arlo pertsonalean, bai. Bakadit zein den makroepaiketa baten prozesua eta, egia esan, azkenaldian eskema hori presente izan dut buruan. Gainera, epaitzen gaituen epaile burua orduko bera izango da. Beraz, *dejá vu* modukoak izan ditut hainbat unetan, bai. Ordukoagaz alderatzen hasita, desber-

“

Babes handia jaso dugu. Onartzen dut beste batzuk baino eszeptikoagoa nintzela arlo horretan"

—

dintasun nagusi bat ikusten dut: orduan kartzelatik joan nintzen epaiketara. Beraz, ez nuen kanpotik bizi izan prozesu guztia. Orain, ostera, jendeagaz nago, Madrilera joan-etorriak izango ditut... Alde horretatik, oraingoa esperientzia berria izango da niretzat.

Astelehena hasiko da epaiketa. Zein da agenda? Zenbat joan-etorri egingo dituzu Madrilera?

Printzipioz, epaiketak azaro amaierara arte iraungo du. Egun izendatuak ditugu Madrilera joateko. Hasieran, hauxe izango da agenda,

“

Otxandion eta Otxandiotik kanpora epaiketa honi aurre egiteko laguntzen ibili diren guztiei eskerrak eman gura dizkiet"

—

gutxi gorabehera: aste batean joango gara, eta hurrengo bietan ez. Azaroan, ostera, aste batean bai, eta hurrengoan ez. Badakigu joan beharreko egunak zeintzuk diren. Sententzia jakin eta gero ikusi beharko dugu aurrera begira zer dinamika planteatu.

Epaiketak bakoitzaren kontrakoak dira, baina ingurukoie ere eragiten diete, senitartekoei esaterako. Zure ingurukoek zelan daramate hori?

Epaiketa hurreratzen doan heinean, gero eta urduritasun handiagoagaz. Arlo honetan ere badago aldea aurretik bizi izan nuen epaiketagaz alderatuta. Gurasoak eta neba-arrebak hor zeuden, jakina, baina orduan ez neukan bikotekiderik eta seme-alabarik eta, zelanbait esanda, zure bizitzako bakardadean bizi duzun egoera bat da. Orain, ostera, badakit bizitzarekiko erantzukizunak beste batzuk diren. Bikotekidea eta urte bi eta erdiko semea ditut. Eurekin dudan hartu-eman zelan aldatu daitekeen eta horrelakoak pentsatzen dituzu; kartzelara sartzen banaute, harako joan-etorriek eragingo dietena eta abar. Herri honetan badu-

gu esperientzia arlo horretan, eta badakigu zelakoa den egoera hori. Zure ingurukoek zer bizi dezaketen pentsatzen hasten zara, eta hori beste harri handi bat da soinean daramagun motxilan.

Motxila aipatu duzu eta motxiladun umeen errealtatea ere hor dago. 38 umeri eragiten dien prozesua da.

Nirea txikia da eta oraingoz ez da gertatzen denaz ohartzeko. Etorkizuneko egoera beste kontu bat da. Gaur gaurkoz, ume nagusiagoen kasua desberdina da. Joan zen egun batean, ia zazpi urteko umea duen auziperatu bategaz egon nintzen eta bere arduretako bat da zelan azaldu umeari egoera hau. Dilema pertsonal serioa da. Ez da gaur egungo egoera azaltzea bakarrik. Aurrera begira zer gertatu daitekeen ere azalduko diozu? Eta horrela bada, zelan azalduko diozu? Ez da erraza asmatzea.

“

Epaiketa astelehenean hasten da, eta manifestazioa lehen faseko amaiera moduan planteatzen genuen

—

Zerbait gehitu gura duzu?

Otxandion eta Otxandiotik kanpora epaiketa honi aurre egiteko laguntzen ibili den jende guztiari eskerrak eman gura dizkiot. Sasoi batean, 'Elkartasunari elkartasuna' leloa plazaratu genuen, eta guri elkartasun dinamika batean aritzea egokitu zitzaigun moduan, orain, elkartasuna geuk behar izan dugunean, jende hori egon da beti. Inoiz eteten ez den kate bat da. Elkartasuna lantzeko jende asko lanerako prest dagoela ikustek adorea ematen digu guri, eta baita kartzelan daudenei ere.

KRONOLOGIA

2013ko irailaren 30a: Guardia Zibilak 18 lagun atxilotu zituen Herriraren aurkako operazioan.

2014ko urtarrilaren 8a: Euskal Preso Politikoen Kolektiboko Bitartekaritza Taldeko zortzi kide atxilotu zituzten. Tartean, Egoitz Lopez de Lacalle.

2015eko urtarrilaren 12a: Auzitegi Nazionalak euskal preso eta iheslari politikoen abokatuen aurkako operazioa agindu zuen. Hamabi abokatu atxilotu eta haien bulegoak miatu zituzten. Herrirako hiru kide ere atxilotu zituzten.

2015eko urtarrilaren 12a: Egun berean, Bilboko LABen egoitzan sartu ziren eta presoen aldeko urtarrileko manifestazioan batutako dirua eramane zuten.

2015eko martxoaren 15a: Etxerat eta Jaiki Hadi elkarten kontrako operazioan elkarrekin bakoitzeko lagun bi atxilotu zituzten.

2019ko ekainaren 1a: Auzipetu guztiak agerraldia egin zuten Donostian, euren egoeraren eta prestatutako mobilizazioen berri emateko.

2019ko irailaren 14a: Auzipetuei elkartasuna adierazteko manifestazioa egongo da Bilbon.

2019ko irailaren 16a: 47 euskal herritarren kontrako makroepaiketa hasiko da Madrilan, Espainiako Auzitegi Nazionalan.



Joan zen asteburuan, Egoitz Lopez de Lacalleri elkartasuna adierazteko hainbat ekintza egin zituzten Otxandion; tartean, irudiko elkarretaratzea.

Hondakin guneen kokapenaren harira, Olleria, Juan Mari Altuna eta Montevideo kaleetakoek eragin dute kexarik gehien

Udalak Durangoko hondakin gune berrien gaineko azalpenak eman zituen eguaztenean Elkartegian egindako batzarrean

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Abuztuan Durangoko edukiontzien banaketa birmoldatu dute eta horrek kexak eragin ditu. Horregatik, udaleko arduradunek herri batzarra egin zuten eguaztenean, azalpenak eman eta herritarren ekarpenak jasotzeko. 50 bat herritar batu ziren Elkartegian egindako bileran. Norbanakoez gainera, auzo elkarteetako hainbat ordezkari bertaratu ziren, Madalena, Herria eta Durangoko Alde Zaharrekoak, esaterako.

Batzar "aberasgarria" izan zela baloratu du Aritz Bravo udaleko Lurralde Saileko arduradunak. Besteak beste, berak eman zituen azalpenak batzarrean. "Beharbada herritar batzuek ez dute kexak idatziz bidaltzeko ohiturarik izango eta batzarrean hainbat profiletako kexak jasotzeko aukera izan genuen", azaldu du.

Herritarren kexa asko eremu konkretu batean kokatu ziren: Olleria, Juan Mari Altuna eta Montevideo kaleek osatzen duten nu-

kleoan. Eremu horretan hondakin gune asko kontzentratzen direla da arazoa. Bravoren esanetan, zonalde hartako hondakin guneen kon-

50 bat herritar batu ziren herri batzarrean; tartean, hainbat auzo elkartetako ordezkariak izan ziren

zentrazioa "arintzeko" eta guneak "birkokatzeko" irtenbideak aztertzen dabilza.

Alde Zaharreko ekarpenak

Beste kexa batzuk Alde Zaharreko bizilagunen aldetik heldu ziren, Kanpatorrosteta eta Komentukale inguruko bizilagunen partetik, hain zuzen ere. Udalak proiektu bat du Alde Zaharreko edukiontzien kudeaketa sistema moldatzeko eta gaur egungo egoera hobetzeko. Birziklapen gune konpletoak sortuko dituzte. Hau da, egitura bakar



Eguazten arratsaldean Durangoko Elkartegian egindako herri batzarreko irudia.

Batzar "aberasgarria" izan zela adierazi du Aritz Bravo udaleko Lurralde Saileko arduradunak

eta handi batek edukiontzi mota guztiak barneratuko ditu eta iluntzeetan ipini eta goizetan kenduko dituzte. "Laster herri batzar bat egingo dugu hango auzotarrekin, sistemaren funtzionamendua azaltzeko eta gune horien kokapenik aproposenak herritarrekin batera

pentsatzeko", aurreratu du Bravok. Herri batzarra egin, eta hurrengo goizean hasi ziren udal arduradunak kexak aztertzen. Batzuk kasu puntualak direla eta "irtenbide erraza" dutela dio Bravok. Beste batzuei irtenbidea aurkitzea zailagoa izango dela onartu du.

Ertzaintzaren arabera, baliteke 32 urteko gazte durangarra bere borondatez desagertu izana

Familiako iturriek ANBOTOrri jakinarazi diotenez, "gaztea atzerrian dagoela dioten aztarnak" agertu dira. Gazteak 32 urte ditu eta irailaren 8tik falta da

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Ertzaintzaren arabera, litekeena da irailaren 8tik hona falta den gazte durangarra "bere borondatez desagertu izana". Halaxe adierazi diote Segurtasun Saileko iturriek ANBOTOrri. Edizio hau ixterako, baina, hori guztiz "baiezatu barrik" dagoela gaineratu dute. Bestalde, astekari hau gaztearen familia-kideekin hartu-emanetan ipini da eta jakin du "gaztea atzerrian

Gaztearen autoa lurretako Paduretako aparkalekuan agertu dela baieztatu du Ertzaintzak

dagoela adierazten duten aztarnak" agertu direla. Hala ere, ez dute beragaz harremanetan jartze-

rik lortu. Gaztearen hurbilekoek martitzenean egin zuten publiko desagertzea, eta Ertzaintzak baieztatu egin zuen gertakaria. Sare sozialetan zabalduak diren mezuak, gaztearen autoari buruzko xehetasunak ere ageri ziren. Horren ondoren, Ertzaintzaren beste baieztapen bat etorri zen: autoa lurretako Paduretako aparkalekuan agertu zen. Gazteak 32 urte ditu.

Aurtengo Mugikortasun Astea hainbat berrikuntzagaz dator

'Escape room' bat eta bizikletak zein skateak konpontzeko tailerrak izango dira egitarauko berrikuntzak

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Mugikortasun Astea datorren astelehenean domekara egingo da eta nobedade batzuk izango ditu aurtun. *Irtenbide barik* izeneko 'escape room' jokoa eta bizikletak zein skateak konpontzeko tailerrak dira berrikuntza nagusiak. Ekintza horiei gehituko zaizkie eskoletan egitekoak diren bide segurtasunari buruzko tailerrak, Zugaza zinemaren barneal-

dean eta kanpoaldean emango dituzten bideo proiektzioak, eta janaria etxera bizikletaz eramaten dutenentzako kanpaina bat.

Programa honen bitartez, udalak "garraiobide jasagarriak" eta "mugikortasun garbia" sustatu gura ditu. Egitaraua Berdeago plataformagaz eta STOP Accidentes elkarteagaz osatu dute. Egitarauaren xehetasun guztiak udalaren web orrian daude eskuragarri.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko irailaren 13a
17. urtea - 775. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Amaia Frontaura: "Agenteak kalean ikustea eta herritarrengandik gertu egotea gura dut"

Abuztutik hona, Amaia Frontaura da Durangoko udaltzainburu berria. Orain arte, ardura berrira egokitzen eta herria aztertzen egon dela dio, baina, hemendik aurrera, gertuko polizia eredu baten alde lan egingo duela azaldu du

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko udaltzainburu berriak argi du zein lan ildo garatuko duen bere lantaldea gidatzeko: "Agenteak kalean ikustea eta herritarrengandik gertu egotea gura dut. Horixe da nire helburu nagusia". Amaia Frontaura da Durangoko udaltzainburu berria. Abuztuaren 1ean hartu zuen kargua, eta asteon aurkeztu du bere burua jendarean, udal gobernu taldeko Iker Urkiza eta Jorge Varela zinegotziak lagunduta.

Urkizak nabarmendu du Frontaura "profil soziala" duen udaltzainburua dela, eta horrek "udaltzaingo gertu eta irekiago bat" garatzen lagunduko diola Durangoko herriari. "Enpatiaduna, durangarrek hainbeste baloratzen eta eskatzen duten hori, hain zuzen ere", gaineratu du. Orain arte, ardura berrira egokitzen eta Durangoko herria aztertzen egon dela argitu du Frontaurak, baina jakinarazi du hemendik aurrera gertutasuna eskainiko duen udaltzaingo baten lanketan hasiko dela.

Frontaura durangarra da. 1978an jaiotakoa da eta beti mantendu du herriarekiko lotura. "Durangarra naiz eta hemen egiten dut bizimodua. Bertan ditut familia eta lagunak", azaldu du. Alde horretatik, "herriagaz



Frontaurak (erdian) agerraldia egin zuen astelehenean, udal gobernu taldeko Iker Urkizagaz (ezkerrean) eta Jorge Varelagaz (eskuman).

konprometituta" dagoen udaltzainburu legez deskribatu du Urkizak.

Udaltzainburu berria hamar-kada biko lan esperientziagaz hasi da lanean bere jaioterrian. Aurretik, 17 urte egin ditu Bilbon, hiriko udaltzain eta udaltzain lehendabiziko legez. Arrasaten beste 3 urtean jardun du, ofizial eta azpi-ofizial. Udal gobernuak kideek nabarmendu dutenez, gutxi dira udaltzainburu ardura "hain gaztetan" hartzen dutenak.

Hogei urteko udaltzain ibilbidea du Frontaurak: 17 urte egin ditu Bilbon, eta 3 Arrasaten

"Sare sozialetan zabaldu da nire kargua 'konfiantza kargua' dela, eta ez da egia"

Hautaketa prozesu publikoa
Bere karguaren izendapenari buruz sare sozialetan zabalduko

hainbat zurrumurru gezurtatu gura izan ditu Frontaurak: "Gauza bakarra aipatu gura dut. Sare sozial batzuetan zabaldu da nire kargua 'konfiantza kargua' dela, eta hori ez da egia, 'hautaketa librekoa' baita. Ez dira gauza bera". Hain zuzen ere, Frontaurak deialdi publiko bitartez eskuratu du udaltzainburu postua, ez baita udal gobernuak modu zuzenean egindako izendapena izan.

Udaltzainburu berria aukeratzeko prozesua aurreko udal

gobernuak ipini zuen martxan, eta deialdi publikoa egin zuen joan zen apirilean. "Lau hautagai aurkeztu ziren eta horietako bik baino ez zituzten bete irizpide guztiak", azaldu du Urkizak. "Kriterio objektiboei jarraituta, alde teknikoak pertsona bi hauen arteko balorazioa egin zuen ondoren, eta bietako bat onetsi zuen. Oraingo gobernu taldeak "txosten teknikoari kasu eginda" izendatu du Amaia Frontaura Durangoko udaltzainburu.

Emakumezkoa den udaltzainburu bakarrenetakoa

Udaltzaingoaren buruzagitzan emakume bat egotea ezohikoa da oro har, eta baita Durangaldean ere. Dena dela, egon izan dira aurrekariak. Abadiñon, Izaskun Irazolak gidatu zuen udaltzaingo bost urte baino gehiagoan, baina 2014tik ez dago ardura horretan. Kasu bakarrenetarikoa da Frontaura durangarrarena. "Oñatin bada kasu bat. Emakumea da hango udaltzainburua ere. Nik dakidala, baina, ez dago besterik", dio Frontaurak. Iker Urkiza zinegotziaren esanetan, polizia ardura-dunak figura nahiko "maskulinizatuak" izaten dira normalean, eta Frontaurak "ekarpena egin dezake emakumeak polizia lanetan ikusaraztearen alde".

Durangoko Azokak martxan ipini du erakusmahaiak alokatzeko epea

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Azokan salmahaia ipini gura duten argitaletxe, diskoetxe, ekoiztetxe, elkarte, erakunde eta autoekoizleek irailaren 30era arte izango dute izena emateko epea. Eskaera internet bitartez egin behar da, Durangoko Azokaren webgunean erregistratuta. Interesatuek askotariko tamainen artean aukeratu beharko dute.

Eskualdekoentzat, doan

Durangaldeko sortzaile, elkarte eta erakundeek inolako kosturik barik ipini dezakete erakusmahaiak. Horretarako, Durangaldeko udalerriren batean eduki beharko dute helbide fiskala. Produktu guztiak 'Durangaldeko argitalpenak' standean erakutsiko dituzte.

Andereak eta Batukandrak Larrialdi Feminista egunagaz bat egitera deitu dute

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Estatu mailan eraturako plataformak Larrialdi Feminista egunera deitu du irailaren 20rako, eta Andereak eta Batukandra elkarteek deialdi horregaz bat egin dute. Uda honetako "basakeria matxistari" erantzuna ematea da helburua, Estatuko plataformak zabalduko adierazpenak jasotzen duenez. Ildo horretatik, elkarte biek uste dute "ezin" daitekeela azaroaren 25era arte itxaron erantzuna emateko. Irailaren 20ra begirako proposamena egin dute. "Kaleak eta gaua argi morez betetzea proposatzen dugu. Hain zuzen ere, manifestazio bat gagez egitea, argi morea piztuta. Eraman dezagun argi morea kandeletan, mugikorretan...", azaldu dute ohar batean.

Gurutze Santua gorestekoa jaia egingo dute asteburu honetan Garain

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaitarrak gertu daude Gurutze Santuaren jaia ospatzeko. Santa Katalinari eskainitako ermitan egingo dute jaia, eta udalak egitaraua zein den jakitera eman du. Zapatuan, 19:30ean, Donien Atxa altxatuko dute. Domekan, 11:00etan, meza egongo da, eta, ostean, herriko dantzarien ekitaldia. Jaia luntx batez amaituko dute.



Abadiñoko Udalak 5 euroko 1.000 bonu eskainiko ditu urriaren 1etik aurrera

ABADIÑO • A.M.

Abadiñoko udalak bost euroko 1.000 bonu eskainiko ditu Abadiñoko saltoki eta tabernetan salerosketak sustatzeko. Hamabost euro edo gehiagoko erosketetan, erosleek bost euroko deskontua edukiko dute. Kanpaina urriaren 1ean martxan ipiniko dute. HAZen bulegoan egin daiteke eskabidea. "Herriko komertzioetan salmenta bultzatzea da ekimenaren helburua. Horregaz batera, erraztasunak eman gura dizkiegu bezeroei establezimendu horietan dagoen kalitatezko eskaintza zabalaz egazutu dezaten", azaldu du Iñaki Rekalde Ogasun, Ekonomia Sustapen eta Enplegu arloko zinegotziak. Iaz hogeita bi denda eta tabernek parte hartu zuten ekimenean.

Sebastian Lizasok eta Maddalen Arzallusek Zaldibarren egingo dute bertsoan

ZALDIBAR • A.M.

Irailaren 20an bertso afaria egingo dute Zaldibarko Goierri auzoko auzo etxean, eta Sebastian Lizasok eta Maddalen Arzallusek egingo dute bertsoan bertan. 21:00etan da afaria. Euskara Zerbitzuak antolatuta, eta sarrerak Negugogorren, Casteten, Paularen Zokoan eta Sorgin tabernan daude salgai, 20 euroan; ikasle eta langabeek 10 euroan erosi dezakete. Kasu honetan, baina, interesdunek udal bulegoetara jo beharko dute txartela eskuratzera. Irailaren 18a izango da sarrerak erosteko azkeneko eguna.

Bestalde, euskarazko eskolatarako eta Berbalagunetarako matrikulazio epea zabalik dago. Irailaren 20ra arteko epea dago izena emateko.



Urtero lege, lore eskaintza egin zuten Berrizen.

Frankismoko biktimak omendu dituzte Berrizen, memorian iraun dezaten

Eneritz Gorritxategi, Iokin Elortza eta Iñaki Elortza musikari berriztarrek Ariztimuño batailoiko gudariak fronteant abesten zuten kanta berreskuratu dute

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Eguaztenean, frankismoan hildako eta errepresaliatutako berriztarrek gogoratu zituzten Berrizen. 1936an, indar frankistek Felipe Urtiaga alkatea eta Jose Agirre, Gregorio Urkijo, Fermin Aranguren eta Agustín Milikua herritarrak fusilatu zituzten, eta, harrezkero, lagun horiek eta fronteant borrokan zein kartzelan hildakoak omentzen dituzte irailaren 11n.

“Halako ekitaldi xumeekin memoria eta egia berreskuratu, eta egia hori iraunaraztea lortzen dugu”, adierazi du Maite Arrizabalaga Berriz 1936 Gogoratzen elkarteak

kideak. Horrez gainera, Berrizen egia, justizia eta erreparazioa eskatzen jarraituko dutela nabarmendu zuten elkarteko kideek.

Berrizen egia, justizia eta erreparazioa eskatzen jarraituko dutela jakitera eman zuten ekitaldian

Bestalde, eguazteneko ekitaldian politikariek eskerrak eman zizkieten Berriz 1936 Gogoratzen elkarteak kideei “memoria berres-

kuratzeko” egindako lanarengatik, “sarritan isilean egindako lan guztiagatik”.

Gudarien abestia

Eguazteneko ekitaldi berezia izan zen herritarrentzat, Julian Narbaiza gudariaren senitartekoei Berriz 1936 Gogoratzen elkarteak kideei emandako partitura bati eskerrak. Narbaiza berriztarra Ariztimuño batailoiko kidea izan zen 1936ko gerran, eta gudariak fronteant abesten zuten kanta berreskuratu zuten Eneritz Gorritxategi, Iokin Elortza eta Iñaki Elortza musikari berriztarrek.



Sorkunde Narbaiza (Berriz)

"Partitura desagertuta zegoelakoan nengoen, eta asko hunkitu naiz"

Zuen aita Ariztimuño batailoiko gudaria zen, eta abesten zuen kanta berreskuratu dute Eneritz Gorritxategi, Iokin Elortza eta Iñaki Elortza musikari berriztarrek.

Oso momentu berezia eta polita izan da. Gaztetan sarritan abestu nuen kanta hau aitagaz. Musika asko gustatzen zitzaien; berak abestia abesten zidan eta nik akordeoiaz jotzen nuen. Aitak ez zeukan partiturarik eta hamahiru bat urtegar pentagraman idaztea lortu nuen. Aitak letra idatzi zion azpian.

Oso une berezia izan da.

Partitura hori desagertuta zegoelakoan negoen, eta asko hunkitu naiz. Momentu batean, urte batzuk atzera egin eta aitagaz sukaldean abestia abesten nengoela pentsatu dut. Oso polita izan da.

Berriz 1936 Gogoratzen elkarteak lanean dihardu frankismoko biktimak gogoz izateko.

Lan ikaragarria egiten dabilta. Gure gurasoek zenbat sufritu zuten eta zelako bildurra pasatu zuten belaunaldirik belaunaldi transmititzea oso garrantzitsua da. Urte haiek gogorak izan ziren, eta ez daitezela halako gehiago etorri. Gurean, esaterako, aitak ez zuen gauza askorik kontatzen. Askok sufritzen zuten garai hartako istorioak gogoratzean.

Barrakak Maspeko aparkalekuan ipiniko dituzte, N-634ko obren eraginez

Paduretako aparkalekuaren zati bat hartuko dute jaietako barrakak Sanmiguelak iraun bitartean, irailaren 26tik urriaren 8ra aurreikusi dute egongo direla bertan

IURRETA • AITZIBER BASAURI

N-634 errepide nagusian egiten dabilzan berrantolaketa lanen eraginez, barrakak lekuz aldatuko dituzte datozen sanmigel jaietan. Maspe kalera eramango dituzte, Iñaki Totorikaguena alkateak azaldu duenez. Paduretako aparkalekuaren heren bat erabiliko dute orain arte Ibarretxe kultur etxearen alboan egon izan diren barrakak ipintzeko.

Kultur etxearen alboko lursailan, errepide nagusiko obretarako etxolak eta eraikuntza materiala daude une honetan, eta Maspe barraketarako leku egokiagoa delakoan, hara eramango dituzte.



Paduretako aparkalekuaren heren bat erabiliko dute barrakak ipintzeko.

Herri lasterketa familiarra egingo dute, bosgarrenez

Ekimenak berdintasuna, kirola eta elkartasuna uztartu gura ditu, eta herritarrak parte hartzera deitu dituzte

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Domekan V. Herri Lasterketa Familiarra egingo dute, eta txikiak izango dira lehenengoak korrika egiten, 11:00etan. Handik ordu erdira, helduen txanda izango da. Umeentzat moto lasterketa ere egingo dute, 12:30ean, eta,

amaitzean, gaztetxoek herri kirolak egiteko aukera dute HEKI elkartearen eskutik.

Dortsalaren trukean euro bat ordainduko da, eta diru hori La Otra Miradarentzat izango da. Pintxo eta errifa solidarioak, eta Bel-dur Barik gunea ere egingo dira.



Antolatzaileek korrika egitera animatu dituzte iurretarrak.

Irabazi asteburu pasa zoragarria edo tablet bat!

**Bidali zure argazkiak
irailaren 22ra arte**

UDA KO 5. ARGAZKI LEHIAKETA

anboto 
komunikabideak



Durangaldeko 2018ko
argazkia
IRABAZLEA

Durangaldetik kanpoko
2018ko argazkia
IRABAZLEA



2 KATEGORIA SARITUKO DIRA

- ESKUALDEKO ARGAZKIRIK ONENA
- DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

ANTOLATZAILEA **anboto** 
komunikabideak

LAGUNTZAILEAK



Garaiak
Lantzetxea

EROSKI bidaiak
Anetsetan? Egiar Legon!

EROSKI
Abadiño Zurekin

ETB
databost
Informazio & Inberruzketa

Informazio gehiago www.anboto.org webgunean

"Gogoa edukitzea ezinbestekoa da furgonetan bidaiatzeko"

Hugo Oliveirak hainbat ekimen antolatu du furgoneta zaleentzat astebururako, Elorrion



Hugo Oliveira Camper Inside taldeko bultzatzailea da.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

50 furgoneta zale baino gehiago batuko dira Elorrion asteburuan. Hugo Oliveira iurretarrak asteburu osoko egitarau zabala antolatu du furgoneta zaleak batzeko. Esaterako, bisita gidatuak, DJak, jolasak eta abar izango dituzte kiroldegí ondoko aparkalekuan.

Eskualdean, lehenengoz antolatu duzue ekimen bat furgoneta zaleak batzeko. Zer dela eta?

Orain hiru bat urte, furgoneten munduan murgildu nintzen. Taldeetan sartu eta informazioa batzen hasi nintzen. Orduan, Espainian zehar hiru eguneko elkarretaratzeak egiten zituztela ikusi nuen, eta animatu eta horietako batera joatea erabaki nuen. Bakarrik joan nintzen, eta topatu nuen asko

harritu ninduen. Harrezkero, hainbatetan izan naiz, baita antolatzen laguntzen ere. Orduan, eskualdean zerbait egin genezakeela pentsatu nuen, Durangaldea ezagutzera emateko asmoz. Elorrioko Udaleri proposamena aurkeztu nion, eta baiezkoa eman eta erraztasun guztiak eman dizkirate. Gainera, herriko dendek ere harrera ona egin diote gure ekimenari.

Zein da ekimenaren helburua?

Helburu nagusia jendeak gure inguruaz gozatzea, gure kultura ezagutzera eta asteburu giro onean pasatzea da. Horrez gainera, Elorrioko dendetan eta tabernetan jendeak kontsumitzea ere bada asmoa. Eta asteburu honetan Elorriora datozen furgoneta zaleak etorkizunean ere berriro etortzea, jakina.

Ematen du furgonetan bidaiatzea modan dagoen kontua dela.

Egia esan, jende askok bidaiatzen du furgonetan zein autokarabanan; gero eta gehiagok esango nuke. Gainera, behin aproba eginda, harrapatu egiten zaituen pasioa dela esango nuke.

Zer behar da derrigorrez furgonetan bidaiatzeko?

Gogoa edukitzea ezinbestekoa da furgonetan bidaiatzeko.

Zure ustez, zeintzuk dira furgonetan bidaiatzearen abantilak?

Furgonetan bidaiatzeak jendea ezagutzeko aukera aproposa eskaintzen du, jende desberdina. Baita hainbat kultura eta leku ezagutzeko ere. Horrez gainera, gura duzun lekuan eta gura duzun momentuan egoteko aukera eskaintzen dizu.

Garbiketa orokorra egin ondoren, ikastetxe publikoak zabalik Elorrion

Garbitzaileen greba dela eta, Elorrioko haurreskolak ez zituen gutxieneko garbitasun neurriak betetzen, eta umeez egun bi geroago hasi behar izan zuten ikasturtea

ELORRIO • J.G./M.Z.

Garbitzaileak greban daude orain lau hilabetetik Elorrion, eta greba horrek eragina izan du ikasturte hasieran Elorrioko ikastetxe publikoan irekieran.

Haurreskolako umeez irailaren 5ean ziren ikasturtea hasteko, baina ez ziren hasi. Irtenbide lez, Elgetara joatea proposatu zieten, baina gurasoek uko egin zioten aukera horri. Joan zen eguenean batzarra egin zuten arazoari irtenbidea bilatzeko asmoz. Udala, Eusko Jaurlaritza, ELA sindikatua eta garbiketa enpresa batu ziren,

baina ez ziren ados ipini. Ondorioz, gaia Lan eta Justizia Sailaren esku gelditu zen.

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak garbiketa orokorra egitea agindu zuen

Lan eta Justizia Sailak Elorrioko haurreskolako zerbitzu minimoak handitu ditu

Eusko Jaurlaritzak joan zen barikuan kaleratu zuen txostenaren arabera, Elorrioko hiru ikastetxe publikoak garbituta egon behar ziren astelehenerako. Hori horrela, langileak irailaren 6an hasi ziren eraikinak garbitzen, aste honen hasierarako dena garbi egoteko.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak Elorrioko haurreskolako zerbitzu minimoak handitu ditu. Idoia Buruaga alkateak modu positiboan baloratu du erabakia: "Erabakia begi onez ikusi dugu, ikasleek normaltasunez hasi ahal izan dutelako ikasturtea".



Joan zen eguenean egindako elkarretaratze argazkia.

Astebeteko epean herrian gertatutako eraso matxista biak salatu dituzte Elorrion

Erasoak salatzeko asmoz, Elorrioko Asanblada Feministak kotxe karabana bat antolatu zuen

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abuztuaren 30ean, 42 urteko gizonetako bat atxilotu zuten Elorrioren, bikotekidea jotzea leporatuta. Joan zen zapatuan, beste eraso matxista bat gertatu zen herrian.

Eraso biak salatzeko asmoz, Elorrioko Asanblada Feministak kotxe karabana bat egin zuen eguazten iluntzean.

Horrez gainera, Elorrioko Udaleri "irmotasunez" gaitzetsi ditu azken asteotan gertatutako eraso

biak. "Denbora gutxian eraso biren berri izan dugu. Izugarri kezkatzen gaituzte eta irmo errefusatzen ditugu. Erasotzaile orok jakin behar du emakumeen aurkako indarkeria mespretxatzen dugula, ez dugula onartuko, ez gure herrian ez beste inon", adierazi dute Elorrioko Udaleri kideek adierazpen instituzionalean.

Elorrioko Udaleri "irmotasunez" gaitzetsi ditu azken asteotan gertatutako eraso biak

Zornotzak Euskal Herriko sagardo txapelketaren kanporaketetako bat hartuko du

Sagardoa gustuko duten herritar guztiak parte hartu dezakete epaimahaikide moduan. Sarrerak salgai jarri dituzte

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Euskal Herriko sagardo txapelketa herrikoien finalurreko bat Zornotzan jokatu da, irailaren 21ean. Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak bertan parte hartzera deitu ditu herritarrak. "Ez da aditua izan behar. Nahikoa da sagar-

doa gustatzea", esan dute. Afari baten bueltan, hainbat sagardo dastatu eta puntuatuko dituzte. Edur Mendi elkartearen jokatu da kanporaketa, 20:00etan. Sarrerak Uxarte sagardotegian, Tomasa tabernan eta www.sagardoa.eus atarian erosi daitezke.



Txapelketak izaera herrikoa du eta sagardoa gustuko duen edonorentzat dago zabalik.

53. Euskal Herriko Artzain Txakur txapelketa jokatu da bihar, Axpen

Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako, Nafarroako eta Iparraldeko artzainek parte hartuko dute Elizburuko landetan jokatu den Euskal Herriko Artzain Txakur txapelketan



Aritz Ganboak eta Suak irabazi zuten iazko txapelketa. TXELU ANGOITIA

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Euskal Herriko Artzain Txakurren Txapelketa Axpen jokatu da, hilaren 14an, 17:30ean. Aurten, 53. aldia izango du eta Gerediaga Elkartek antolatu du Atxondoko Udalaren, Draxton enpresaren, Atx Azpi elkartearen, Euskal Herriko Artzain Txakurren Elkartearen eta Urkiola Landa Garapenerako Elkartearen laguntzagaz.

9 artzain eta 11 txakur

Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko txapelketetako txapeldun eta txapeldunordeek osatuko dute partaideen zerrenda. Guztira, 9 artzainek eta 11 txakurrek parte hartuko dute zapatuko txapelketan. Hauek izango dira Elizburuko landetan lehiatuko direnak: Enrique Mendiguren Laia eta Riki txakurrekin, Asier Bolibar Kobigaz, Fidel Alonso Bat txakurragaz, Antonio Alustiza Jai eta Aske txakurrekin, Jabier Zubiaurre Mendigaz, Migel Arregi Argigaz, Gillen Echegoyen Gaua txakurragaz, Martzel Ugalde Etxegaz eta iazko txapelduna, Aritz Ganboa, Sua txakurragaz.



Axpeko plaza inguruko bideak konpondu dituzte.

Axpeko errepidea eta plaza inguruko bideak konpondu dituzte

Lanek 256.524 euroko aurrekontua izan dute eta %90 Bizkaiko Foru Aldundiko laguntzagaz ordaindu dute

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Iazko udan, erruz egin zuen eurria Durangaldean, eta Atxondo izan zen eskualdeko herririk kaltetue-na. Apatamonasteriotik Axperako bidean, euriteek kalte handiak eragin zituzten, eta, harrezkero, bidea hondatuta egon da. Atxondoko Udalak Axpeko plaza inguruko bidea konpondu du, eta baita

Martzaa auzotik Axperaino doan errepidea ere.

Udalak ohar bitartez jakitera eman duenez, uztailen hasi zizuten lanak, eta 256.524 euroko aurrekontua izan dute. 1.079 m² eremua konpontzeko, Bizkaiko Foru Aldunditik %90eko diru-laguntza jaso dutela jakitera eman dute.

Otxandioko bertso eskolakoak balkoirik balkoi ibiliko dira bertsoan gaur Artekalen

Hirugarren urtez, ikasturte hasierako saioa antolatu dute

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Otxandioko bertso eskolakoek bertso saio ibiltari batez hasiko dute ikasturtea, gaur. Aurten, hirugarren aldia egingo du. Aurreko bietan, Artekale kaleko tabernetan aritu izan dira bertsoan. Aurten, eszenatokia aldatu dute. Tabernarik taberna ibili beharrean, balkoirik balkoi ibiliko dira, 20:00etan Andikona plazan hasi eta gaztetxe ingurura heldu arte. Bidean "hainbat sorpresa"

tu zuten. Orduan, nagusien talde batez ekin zioten ibilbideari. Iazko bigarren ikasturtean, nagusienagaz gainera, umeen talde bat

Aurten umeen talde berri bat sortu, eta hirugaz hasi gura dute ikasturtea urritik aurrera

ere sortu zuten. Aurten, 2019/2020 ikasturtearen atarian, umeentzako bigarren talde bat sortzea dute helburu. Lehen Hezkuntzako 1-4 mailen arteko umeek osatuko lukete talde bat, eta Lehenengo Hezkuntzako bosgarren mailakoek eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo mailakoek bigarrena. Hori errealitate bihurtzeko lanean dabilta egunotan. Asmoa gauzatuko balitz, Otxandioko bertso eskolak hiru taldegaz hasiko luke aurtengo ikasturtea datorren urritik aurrera.

Andikona plazan hasi eta gaztetxe inguruan amaituko dute; bidean sorpresak egongo dira

izango direla aurreratu dute bertso eskolako kideek.

Ikasturte hasiera

Otxandioko bertso eskola 2017/2018 ikasturteari begira sor-

Domekan Aita Kurutzeko jaiak ospatuko dituzte Mañarian

MAÑARIA • J.D.

Domeka honetan Aita Kurutzeko jaiak ospatuko dituzte Mañarian. Herritarrek antolatuta, hainbat ekimen egongo dira. Eguna mezagaz hasiko dute, 11:00etan. Ondoren, Andra Mari elkarte dantzarien saioa egongo da eta zozketa bat egingo dute.

Dimako trikitilariak ere etorriko dira, jaiegun hori dimoztarrek ere ospatzen dutelako. Izan ere, sasoi batean, inguru hartan zegoen ermitaren ti-

Goizeko mezaren ondoren, Andra Mari dantza taldekoen saioa egongo da, besteak beste

tulartasuna herri biena zen: Mañariarena eta Dimarena. Ondoren, eraikin hori beste batek ordezkatu zuen, Francisco Lucas Amantegi mañariarraren ekimenez. Gaur egun hantxe ospatzen dituzte jaiak.



Iurreta Eleizateko Udala

IURRETA UDALERRIKO
ENPRESA-PROIEKTUEN
XI. LEHIAKETARAKO
DEIALDIA

Helburua: Iurretako herrigunean enpresa berriak sortzeko ekimenak sustatzea eta bidea erraztea norberaren enpresa edo denda sortuz, lanean hastea erabaki dutenei.

Oinarriak: Lehiaketaren oinarriak Iurretako udaletxean edo Udalaren web gunean eskura daitezke.

Proiektuak aurkezteko: 2019ko ekainaren 1etik urriaren 31ra bitartean, H.A.Z.-en (Bidebarrieta 5).

Saria: 6.000 €

Tfnoa: 94 620 12 00
www.iurreta.eus





Aitor Lopez jarduneko presidentea eta Ane Abanzabalegi EH Bilduko hautagaia.

Eguaztenean argituko da zein alderdik aginduko duen Amankomunazgoan

EH Bildu eta Herriaren Eskubidea egon dira orain arte gobernuan, baina baliteke datorren eguaztenetik aurrera EAJk boterea eskuratzea Abadiñoako Independenteen laguntzagaz. EH Bilduk Ane Abanzabalegi proposatuko du Amankomunazgoako presidente izateko

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Amankomunazgoa da joan zen maiatzeko udal hauteskundee-tatik hona eratzeke falta den erakunde bakarra, baina eguaztenean, hilaren 18an, jakingo da zein alderdik gidatuko duen hurrengo lau urteetan.

EH Bilduk gobernatu du orain arte, Herriaren Eskubideagaz batera, baina baliteke aldaketa izatea. EAJk 13 aulki lortu zituen maiatzeko hauteskundeetan, 12 EH Bilduk, eta bana Herriaren Eskubideak eta Abadiñoako Independenteeek. Azken hauek

dute giltza, eta Abadiñoako udal osaketan izandako logikari segituko baliote, EAJk eskuratuko luke Amankomunazgoa, haien botoagaz. Abstenitu egingo balira, EAJren aldera mugituko litzateke balantza, izan ere, Amankomunazgoa osatzen duten herrietako botoak zenbatuta, 19 botoko alde atera zion EAJk EH Bilduri.

Balantze positiboa

Karguan dagoen Aitor Lopez presidentea "pozik" dago lau urteotako lanagaz. "Neguko zer-

bitzua eskaintzetik urte osorako zerbitzua ematera pasatu da etxerik gabekoentzako aterpea eta Behargintzan eskaintako lanbide ikastaroak ere arrakastatsuak izan dira", adierazi du Lopezek. "Gainera, Zornotza ere batu da lehiakortasun polara eta finantziarioa ere handitu da", gaineratu du.

EH Bilduko Ane Abanzabalegik bere burua proposatuko du erakunde gidatzeko. Egindako bidean sakontzeko gogoia agertu du eta, horretarako, eskua luzatu die gainerako indar politikoei.

Pentsiodunek "salto kualitatibo bat" emango dute datozen mobilizazioetan

Irailaren 30ean, eskualde osoko pentsiodunak Durangon batuko dira manifestazio bat egiteko. Bestalde, azaro aldean grebarako deialdiak egongo dituztela iragarri dute



Durangoko pentsiodunak udaletxeko plazan batu ziren astelehenean.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Pensio duinak aldarrikatzeko mugimenduak "salto kualitatibo bat" emango du ikasturte honetan zehar. Matias Oregi da Durangaldeko pentsiodunen bozeramailetariko bat, eta aurreratu du datorren

irailaren 30ean manifestazio bat egingo dutela Durangon, Adineko Pertsonen Nazioarteko Egunaren bezperan. Bertan parte hartzeko deia egin die eskualdeko herritarrei. Bestalde, azaro bueltan greba deialdiak etorriko direla ere aurre-

ratu du. Durangoko, Zornotzako, Iurretako, Berrizko, Zaldibarko, Elorrioko eta Ermuko pentsiodunak ere elkarlanean dabilzala azaldu du Oregik. Bitartean, pensio duinak aldarrikatzen segituko dute asteleheneroko kontzentrazioetan.

Euskara sustatzeko #Klak! proiektua bueltan dator

Aurtengo programa batxilergoko ikasleei zuzenduta egongo da eta euskara aisialdi eremuan bultzatuko du

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Hizkuntza ohituretan eragin eta gazteek euskara erabiltzeko urratsa eman dezaten, Berbarok eta Amankomunazgoak #Klak! proiektuaren bigarren edizioa aurreratu dute. Aisialdiagaz lotu-

tako erronka eta ekintza sorta prestatu dute aurten ere, euskararen erabileran eta motibazioan eragiteko. Batxilergoa eskaintzen duten Durangaldeko bost ikastetxetan garatuko dute proiektua 2019-2020 ikasturtean zehar.



Iazko edizioaren ekintzetako batzuk Sorginola gaztetxean garatu zituzten.

Zumba, pilates eta beste hainbat ikastaro antolatu dituzte Mallabian

Urriaren hasiko dira eta izen-ematea frontoian egin daiteke

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Mallabiko pilotalekuan askotariko ikastaroak eskaintzen dituzte urtero, eta aurtengo ikasturtera begirakoak urriaren hasiko dira. Izen-ematea hasita dago eta pilotalekuan egin daiteke. Martitzen eta eguenean hiru ikastaro egongo

dira aukeran: hipo-pilates eta nagusientzako gimnasia saioak goizean, eta zumba ikastaroa arratsaldean. Bestalde, astelehen eta eguazten arratsaldeetan, txirrribike, *body-combat* eta hipo-pilates ikastaroetan parte hartu ahal izango da.

Erabilera anitzeko guneko lanak irailean amaitu gura dituzte

Azpiegituri dagokienez, argindarra sartzea falta da; bitartean, udala lokalerako ordenantza lantzen dabil

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Erabilera anitzeko guneko lanak aurrera doaz. Azpiegitura berria birmoldatu, eta altzariz janzteko lanak laster amaituko dira. Egunotan argindarra sartzen dabilzta eta, ondoren, beharrezko altzariekin hornituko dute. "Lanak

irailean zehar amaitzea itxaroten dugu", azaldu du Lorea Muñoz alkateak. Bitartean, guneren inguruko ordenantza lantzen dabilzta. Beste herri batzuetako ereduak jaso dituzte, eta horiek abiapuntu moduan hartuta, Izurtzako lanak aurrera ateratu dira.



Eraikinaren kanpoaldean leiho berriak atera dituzte.



GEREDIAGA ELKARTEA. ASTOLA

Bazenekien...

100 urte bete dira Handley Page hegazkinak Iurretako artasoro batean lur hartu zuela. 1919ko irailaren 8an, hegazkina gasolinarik barik geratu zen eta leku hori aukeratu zuen lur hartzeko. Hegazkinean zihoazen bost pertsonak onik irten ziren. Hegazkinaren hegal bat kaltetu zen soilik. Hori bai, hegazkin harek jakin-min handia piztu zuen Durangaldean. J.G.

Durangaldea asteen

Artisautza azoka antolatu dute astebururako, AIDAE elkartearen urteurrena ospatzeko

Zornotza | Aniztasun funtzionala dutenei laguntzeko AIDAE elkarteak 25 urte egin ditu aurten. Urteurrena artisautza azoka bategaz ospatuko dute. Gaur zabalduko dute azoka, 17:00etan, Zornotzako Zubiondo plazan. Zapatuan eta domekan, 11:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Artisautza eta gastronomia postuak egongo dira eta umeei begirako hainbat ekintza egingo dituzte. Horrez gainera, AIDAEk karpa bat jarriko du azokan, eta elkartearen gaineko informazioa emango du bertan.

Iurretako Maiztegi eskolan jolasgunea konpondu eta jolas berriak ipini dituzte

Iurreta | Iurretako Udalak Maiztegi eskolako zuzendaritzagaz adostutako hobekuntzak udako oporretan egin dituzte, 34.000 euroko inbertsioagaz. Ume txikien jolasgunea konpondu dute eta jolas berri bi ipini dituzte. Lurzorua ere aldatu dute; kolore askotako kautxua ipini dute. Bestalde, kanpoko atari ondoko baranda eta futbol zelaiko kanpoaldean dagoena aldatu dituzte.

Abadiño Katalamixon aisialdi elkarteak lan poltsa zabaldu du hezitzaileak bilatzeko

Abadiño | Abadiño Katalamixon Aisialdi elkarteak lan poltsa zabaldu du eta interesatuek honako helbidera bidali ditzakete curriculumak: lanpoltsakatalamixon@gmail.com. "Soilik euskaraz" idatzitako curriculumak onartuko dituzte. "Gugaz lan egiteko, beharrezkoa izango da euskaraz jakitea eta aisialdi hezitzailearekiko interesa izatea", azaldu dute ohar batean.



Erabaki plataformak batzarra eskatuko du Durangoko gobernu taldeagaz, galdeketaren prozesua zein puntutan dagoen jakiteko

Durango | Estazioko planari buruzko herri galdeketa eskatzen duen Erabaki plataformak Durangoko Udaleko gobernu taldeagaz batzartzeko eskaera egingo du Herritarren Arreta Zerbitzuaren bitartez. "Galdeketaren xehetasun tekniko eta juridikoak eta prozesua zein puntutan dagoen

azaltzeko eskatuko diegu", azaldu dute ohar batean. Galdeketa egiteko eskakizuna, galdera bera eta galdeketaren data osoko bilkurara "ahalik eta arinen" eramateko aukera aztertu gura dute elkarlanean. Gainera, prozesuari buruzko informazioa "aldian-aldian" emateko eskatuko dute.

"Gardentasuna ezinbestekoa dela deritzogu eta hilero gaiaren inguruko datuak publiko egiteko iradokiko diegu", azaldu dute. Udalbatzarreko gainerako alderdiekin batzeko nahia ere erakutsi dute. "Uste dugu garrantzitsua dela alderdi guztiekin berba egitea", diote.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, -IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzirik kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

gure
Zure bide lagun

Errefoztu klaseak
Hizkuntzak
Laguntza Psikologikoa
Mz. Matematika manipulatuak
Kitsua
Autostimu positiboa
Ortografia eta idazketa
Diskalkulia

Andra Mari 16, 1ºD - Durango
Ituriza 42 behe - Beriz
www.gure.eus - hola@gure.eus

KURUTZIAGA
ARTE EDERRETAKO
AKADEMIA

Irailean ikas ezazu margotzen!

IKASTARO BEREZIAK!

Eskatu informazioa eragotzenik barik

Tel.: 946 030 527 / 678 657 676

www.akurutziaga.com

Kurutziaga, 24 DURANGO



Helduentzako ikastaroak



Haurrentzako ikastaroak

TALDE TXIKIAK
CAMBRIDGEKO
AZTERKETA
OFIZIALETARAKO
FORMAZIOA

Zubibitarte 11, Behea ezkerrean
Matiena, Abadiño
www.redhilllanguage.com
redhill.language.school@gmail.com
Redhill Language School

Cambridge English
Escola Preparadora de Crianças



'Benditas'

ANTZERKIA
BERRIZ :: Irailak 13

El mono habitado taldearen eskutik

Artaldea larrean zaintzen dabilzan emakume biri Ama Birjina azaldu zaie; edo hori uste dute haiek, behintzat. Gizatiarrei eta jainkotiarrei buruzko elkarrizketan murgilduko dira artzain biak, zerutik datorkien distirapean. Elkarrizketan, kontuak eskatzetik adiskidetasunera pasatuko dira. Lorategian da hitzordua, 20:00etan.

Irailaren 13an

ATXONDO musika
Kike Tormenta, 20:30ean,
Amillena Arrazolako bentan.

BERRIZ musika
Trakamatraka taldearen
eskutik, musika
ikuskizuna eta tailerra,
18:00etan, Elizondo plazan.
Kulturaz Blai egitarauaren
barruan.

DURANGO urteurrena
Kale kantoiren 3. urteurrena
ospatzeko egitarauaren
barruan **Urdaiazpiko**
ebakitzalea, 19:30ean,
Kale Kanto tabernan.
Garaiko dantzariak,
20:00etan.
Dj BUII, 21:30ean.

DURANGO musika
Mocker's + Sermond's,
22:00etan, Plateruena
kafe antzokian. Mocker's
taldearen *Oreka Ahula*
diskoaren aurkezpen jai.

Irailaren 14an

DURANGO musika
Gaztelako Musika
Tradizionalaren XI.
Jaialdia: Espliegio
(Burgos), 19:00etan,
San Agustin kulturgunean.
Gaztela Leongo elkartearen
kultur astearren barruan.

DURANGO urteurrena
Kale kantoiren 3. urteurrena
ospatzeko egitarauaren
barruan **Chuchi Powa**,
22:00etan.

DURANGO musika
Napimetal Fest:
Vhaldemar+Valkyrin+Ad
Eternum+Sugoi+ 100
Duros+Dj Napimetal,
17:30ean hasita,
Plateruena kafe antzokian.

Irailaren 15ean

ABADIÑO mendi ibilaldia
Mendiko larreetatik
ibilaldia, Urkiolako
Parkeak antolatuta. Plaza
mugatuak. Izena emateko,
94 681 41 55 telefonoan.

BERRIZ izena ematea
Kiroldegiko ikastaroetan
izena emateko azken
eguna, Berrizburun.
946 826 244.

DURANGO karta jokoak
Tute txapelketa azkarra
bazkideentzat, 16:30ean
hasita. Gaztela Leongo
elkartearen kultur astearren
barruan.

IURRETA lehiaketa
'Iurretako jaiak' argazki
lehiaketa hasiko da.
Lanak aurkezteko azken
eguna urriaren 7a izango
da. Argazki bi aurkeztu
daitezke [kultur-etxea@](mailto:kultur-etxea@iurreta.eus)
iurreta.eus helbidera mezua
bidalita. Saria: 50 euro.

IURRETA lehiaketa
V. Herri Lasterketa
Familiarra, 11:00etan,
Askondon.
'Beldur barik' informazio-
gunea eta La Otra Mirada
gunea, 11:00etan.
La Otra Mirada GKEaren
errifa solidarioa,
13:30ean.

Irailaren 16tik 27ra

ABADIÑO izena ematea
Irakurketa kluba
hasiko da urrian. Peru
Magdalenak dinamizatuko
du eta hilean behin
elkartuko dira, maiatzera
bitartean. Izena emateko,
Udal Mediatekan edo Errota
kultur etxean.

ABADIÑO izena ematea
Umeentzako irakurketa
kluba hasiko da urrian.
2010etik 2015era jaiotako
umeei zuzenduta. Saroa
Bikandik dinamizatuko du
eta plaza mugatuak izango
da. Hiru talde sortuko
dira. Izena emateko, Udal
Mediatekan edo Errota
kultur etxean.

Irailaren 17an

DURANGO dokumentala
Palentziako eta
Durangoko gaiei
buruzko dokumentalak,
20:00etan. Amaitzerakoan,
freskagarriak. Gaztela
Leongo elkartearen kultur
astearren barruan.

Irailaren 18ra arte

IURRETA izena ematea
Kultur ikastaroetan eta
bibliotekako ekintzetan
izena emateko epea
zabalik. Ibarretxe kultur
etxean edo Herritarren
Arretarako Zerbitzuaren
bulegoan. Iurretan erroldatu
bakoek irailaren 16tik 18ra
dute aukera izena emateko.



Amorante

MUSIKA
DURANGO :: Irailak 15

Ibon Urizarren proiektu pertsonala da Amorante. Bere lanak aspaldiko koplak, flamenkoa eta Afrikako doinuak nahasten ditu, eta Plateruena terrazan entzuteko aukera egongo da, domekan, 13:00etan.

'Janeten titia' Arriola antzokia

DANTZA • Janet Jacksonek bular bat erakutsi du ikuskizun batean, eta irudi horrek mundua zeharkatu du instant batean. Eskandalua sortu da. Zer eragiten du ekintza berdinak horrelako garrantzia hartzea batzuetan, eta normala izatea besteetan? Horixe du berbagai Ertza dantza taldearen azken ikuskizunak. Irailaren 20an taularatuko dute, 20:30ean.



Pijama eta kamisoi jaia

JAIK I Abadiñarrek pijama eta kamisoiak jantzita irtengo dute gaur Aitte Kurutzeko jaiei hasiera emateko. Ferialekuan egin dute hitzordua, 17:30ean, Andra Marira txopoaren bila

joateko. Ondoren, kalejira egingo dute herrian zehar. Aitte Kurutzeko eguna ospatuko dute bihar, eta mozorro eguna domekan. Itsasoa da aurtengo mozorrorako proposatu duten gaia.

Irailaren 13an

PIJAMA ETA KAMISOI EGUNA

19:00etan, txopoa altxatzea.

20:00etan, parrilada.

21:00etan, ugasixo txapelketa.

22:00etan, Lotxo.

23:00etan, umeen patata dantza. Ostein, umeen kulero eta galtzontzillo lasterketa. Gero, txokolatea.

00:00etan, nagusien patata dantza.

03:00etan, nagusien galtzontzillo eta kulero lasterketa.

Erromeria amaituta, Dj Elvis Caino.

Irailaren 14an

AITTE KURUTZEOA

11:30ean, meza.

Ondoren, dantzak eta luntxa.

17:30ean, umeentzako ikuskizuna.

18:30ean, poteo musikatua.

21:00etan, tortilla txapelketako tortillen aurkezpena. Txapelketa bertsoz girotuko dute.

Irailaren 15ean

MOZORRO EGUNA:

Itsasoa

12:30ean, estropadak.

14:30ean, maleta siku.

15:00etan, umeentzako puzgarriak.

Arratsaldean, Mugi Panderoa.

20:30ean, txopoa botatzea.

Irailaren 18an

IURRETA hitzaldia
'Sexualitatea' (Araceli Alvarez), 17:00etan, Goiuria kulturunean. Anderebidek antolatuta.

Irailaren 19an

DURANGO musika
Dj Pronombres neutros, 22:00etan, Txoria Nuen Maite tabernan. 'Jan and Jai' egitaruaren barruan.

ZALDIBAR musika
W.A.B., 19:32an, Sorgin tabernan.

Irailaren 20an

BERRIZ musika
Kantu kolore, 18:00etan, Olakueta plazan.

DURANGO

Goienkaleko jaiak

Ama birjinari aureskua, txupinazoa, kalejira Sugarri fanfarreagaz, 20:00etan, Goienkalen.
Luhartz taldeagaz erromeria, 22:00etan.

ZALDIBAR ikastaroak

Kultur eta kirol ikastaroetarako izena emateko azken eguna. Udaletxean eman daiteke izena, edo 94 682 70 16 telefono zenbakira deituta.

Irailaren 21ean

DURANGO bazkaria
Anaitasun bazkaria bazkide eta familientzat, San Lorenzoko landetan. Ondoren, tute, igel eta calva txapelketak. Gaztela Leongo elkartearen kultur astearen barruan.

Irailaren agenda



"AITTE SAN MIGEL JAI BATZORDEA SAN MIGEL JAIK" "ARGAZKI RALLYA ON LINE"

Jaietako argazki politenak, dibertigarrienak, interesgarrienak bidali...

Lanak aurkezteko epea: Urriak 7 arte

Lanak aurkezteko e-maila: kultur-etxea@iurreta.eus
Partehartzaile bakoitzak 2 argazki aurkeztu ahal ditu

Saria: 50€

15

Irabazlearen izena: Urriaren 16an argitaratuko da udaleko web orrian

11:00 "Beldur Barik Gunea" Informazio gunea - Askondo. "EZ EZETZ DA". Eraso sexistarik EZ!!

11:00 Iurretako **"V Herri lasterketa familiarra"**

Izen ematea: Irailaren 9tik 12ra Ibarretxe Kultur etxean. E-mail gizarte-ongizate@iurreta.eus e-mailean.

Egunean bertan: 10:45etarte Askondo kalean.

13:30 Errifa solidarioa **"La Otra Mirada"**

16

-

20

"Irailaren 27ko Nagusien bazkaria"

Izen ematea: Irailaren 16tik 20ra, 11:00etatik 13ra Nagusien Etxean.



Playmobil pelikula emango dute, Durango eta Zornotzan.

Zinema

:: Durango ZUGAZA

• **Sordo**

barikua **13:** 19:30/22:00

zapateria **14:** 19:30/22:30

domeka **15:** 18:30/21:00

astelehena **16:** 18:30/21:00

martitena **17:** 20:00

eguztana **18:** 20:00

• **Hotel Bombay**

barikua **13:** 19:30

zapateria **14:** 19:30

domeka **15:** 18:30

astelehena **25:** 18:30

martitena **16:** 20:00

eguztana **17:** 20:00

• **Anna**

barikua **13:** 19:30/22:00

zapateria **14:** 19:30/22:30

domeka **15:** 21:00

astelehena **16:** 21:00

martitena **17:** 20:00

eguztana **18:** 20:00

• **It. Capitulo 2**

barikua **13:** 1 22:00

zapateria **14:** 22:00

domeka **15:** 19:45

astelehena **16:** 19:00

• **El rey león**

zapateria **14:** 17:00

domeka **15:** 17:00

• **Playmobil**

zapateria **14:** 17:30 (euskaraz eta gaztelerez)

domeka **15:** 16:30 (euskaraz eta gaztelerez)

:: Elorrio ARRIOLA

• **Érase una vez en...**

Hollywood

zapateria **14:** 22:00

domeka **15:** 20:00

astelehena **16:** 20:00

:: Zornotza ARETOA

• **Padre no hay mas que uno**

barikua **13:** 20:15

zapateria **14:** 19:30/22:00

domeka **15:** 20:00

astelehena **16:** 20:15

• **Playmobil**

zapateria **14:** 17:00

domeka **15:** 17:00

Irailaren 22ra arte

DURANGO erakusketa
Enrike Ojenbarrenaren artelanen erakusketa, Ezkurdi aretoan.

Irailaren 26ra arte

ELORRIO erakusketa
Ertibil 2019. Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako erakusketa ibiltariaren 37. edizioan 83 artistak parte hartu dute espezialitate guztietako 113 lanekin. Horien artetik, 18 artistaren 18 obra aukeratu dituzte erakusketa osatzeko. Iturri kultur etxean daude ikusgai.

“Diskoa kontzeptuala da, eta maila emateko euskaraz hobeto moldatuko ginela uste genuelako aldatu dugu”

Mocker's hirukote durangarrak 'Oreka Ahula' disko berria aurkeztuko du Plateruenean, gaur, irailak 13, Sermond'sekin batera; 22:30ean hasiko da festa



Jon Garcia, Ritxi Blanco eta Asier Elias. SARA ESTEBEZ

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Mocker's taldeak 'Oreka Ahula' diskoa argitaratu du irailean. Rocka ardatz hartuta, doinu progresiboetara eta psikodelikoetara jo dute oraingo honetan, "inolako loturarik barik". Ia urtebeteko lan gogorraren fruitua da lan berri hau, txikitatik ezagutzen diren hiru lagunen pasiotik jaio dena. Ingelesetik euskararako jauzia eman dute lan berri honetan, gainera.

Euskara hutsean idatzi duzue 'Oreka Ahula'. Zergatik?

Jon Garcia: Hasierako asmoa disko erdia euskaraz eta beste erdia ingelesez egitea zen. Estudioan geundela, Curro Urebak [ekoizlea eta soinu teknikaria] dena euskaraz egitera animatu gintuen. Gainerako abestiak euskaratu, eta gehiago transmititzea lortu dugula uste dugu. Jotzerakoan ere gehiago motibatzen gaitu honek.

Ritxi Blanco: Disko kontzeptuala da, eta, maila emateko, euskaraz hobeto moldatuko ginela uste genuela-

ko aldatu dugu. Currok berak asko animatu gintuen, rock psikodelikoa euskaraz oso originala izango zelakoan. Neure iritziz, euskaraz abesten duten taldeen aukera sorta zabaldu egin dela uste dut, eta horrek ere laguntzen du. Gaur egun, denerik entzun daiteke euskaraz: rocka, trapa, folka...

Zer dago kontzeptu horren atzean?

R.B.: Aurreko lanetan ere ahalegin- du izan gara letrak zaintzen, baina gehiago izan dira kanpora begirako kexa modukoak. Oraingoan,

“**Aurreko lanetan ere ahalegin- du izan gara letrak zaintzen, baina kanpora begirakoak ziren gehiago**”

gehiago izan da barrura begira, nola sentitu izan garen. Bizitzak duen oreka-desoreka horretan ipini dugu arreta.

Asier Elias: Gure barne hausnarketak dira, kanpora begira plazaratzen ditugunak.

J.G.: Letrak nahiko abstraktuak dira, eta bakoitzak bere ikuspuntua eduki dezake.

Smoke Signalsek egindako azalagaz borobildu duzue kontzeptua.

J.G.: Markelen lana itzela izan da, aurreko diskoan bezala. Ideia azaldu, eta bidali zuen lehenengo zirriborroagaz asmatu zuen.

Andaluziara joan zarete grabatzera. Zeren bila?

A.E.: Zenbait estudiotan ibili ginen begira, eta Ritxik hau aipatu zuen. Andaluzian rock psikodelikoa edo progresiboa jorratzen duen mugimendu garrantzitsu bat dago, eta talde guztiek Trafalgar estudioetan grabatu dute. Prezioz arrazoizkoa zela iruditu zitzaigun, eta asteberako joatea erabaki genuen. Aste-

betean buru-belarri grabatzen ibili ginen, inolako distraziorik barik, eta horrek asko laguntzen du, baita sorkuntzarako ere.

R.B.: Gure sokakoak diren Atavisimo, Viaje a 800 eta horrelakoak grabatu ditu Currok han. Jazz asko ere grabatzen du, eta ikuspegi esperimentalak du. Abestien egitura, letrak eta melodiak hor zeuden jada, baina berak beste maila batera eramaten jakin du.

“**Sermonds sekulako taldea da, behar den bezala baloratuta ez dagoena, eta eurekin jotzea oparia da guretzat**”

Spinda Recordsegaz kaleratu duzue diskoa, baita biniloan ere. Nolatan?

R.B.: Currok Bertogaz [diskoetxe-ko kudeatzailea] ipini gintuen harremanetan. Erraz heldu ginen adostasun batera beragaz, baina autonomiarik ez galtzea garrantzitsua zen guretzat. Autogestio zaleak gara gu.

J.G.: Publizitate arloan asko egiten ari da, asko laguntzen ari zaigu.

Hain zuzen ere, oihartzun handia edukitzen ari zarete komunikabide espezializatuetan.

J.G.: Ez genuen uste hainbesteko izango zenik. Gure espazioa asko zabaldu da. Itxaroten ez genuen lekuetan idazten ari dira guri buruz, Durangoko hiru mutili buruz, eta hori itzela da.

R.B.: Pozik gaude, eskertzekoa da arreta, baina badakigu iragan- korra izango dela. Guk badakigu zenbat lan dagoen honen guztia- ren atzean. Hala ere, zoratzekoa da Rockzone aldizkarian orri bi eskaintzea, adibidez. Pentsa, Graveyard bertan ezagutu nuen!

Gaur aurkeztuko duzue, Plateruenean. Gogotsu zaudete?

A.E.: Oso motibatuta gaude, eta, aldi berean, aurreko aurkezpenean baino lasaiago. Hainbat aldaketa egin dugu soinuaren.

R.B.: Zuzeneko soinua ere kontzienteki landu dugu. Ez dakigu noraino heldu gaitzkeen, ez dugulako mediorik dena kontrolatzeko, baina lasai goaz, etxean jotzeko gogoz, eta diskoaz oso harro.

J.G.: Hiru izaterakoan, zuzenekoan soinuaren kontua nahiko zaila izaten da diskokoarekin alderatuz. Baina lortuko dugulakoan gaude.

Sermondsegaz batera. Zuen "anaia nagusi" legez aipatu izan dituzue.

R.B.: 2011n elkarregaz jo genuen, gure lehenengo kontzertuetako batean. Oso hartu-eman ona izan dugu beti eurekin. Sekulako taldea dira, behar den beste baloratuta ez dagoena. Eurekin jotzea oparia da.

A.E.: Egundoko taldea da, erreferentia guretzat. Rockaren aldeko apustua egin izan dute beti, gainera.

Hamarkada bat daramazue behar- rean, eta hainbat etapa igaro dituzue. Zer geratzen zaizue esateko?

J.G.: Izugarria izango litzateke Azkena Rock Festival jaialdian jotzea, adibidez (barrez).

R.B.: Horrela jarraitzea beste hamar urtean.

A.E.: Kanpora irtetea ere ondo le- goke. Aurreko diskoagaz hiru edo lau bider irteten genuen. Oraingoan gehiago irtetea gustatuko litzai- guke.



Gremioen gida

anboto

 **Elektrizitatea**

MARKIEGI

**ARGIZTATZEN
JARRAITZEN DUGU!**

Tabira, 3 - 48200 Durango
Tel.: 946 203 520 - 656 793 932
E-mail: markiegi@markiegi.com
www.markiegi.com

 **Zurgintza**

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

 **Iturgintza**

 **UNAI
GARAY**
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalzaile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

 **Iturgintza**

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

 **Iturgintza**

 **Ubide**
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

 **Iturgintza**

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com
692 859 779

Zubiaurre, 8 IURRETA
946 202 768
Arzubia 10 B industrialdea, 13-14 pabiloiak
ABADIÑO 944 071 791

 **Zurgintza**

 **ATERPE AROTZAK**
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

 **Dekorazioa**

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

 **Eraikuntza eta
birgaikuntza**

 **ARRETXE GESTION**
ERRAIBUNTZA ETA BIRGAIBUNTZA

TKALETAK - TXOKOLAK
FATKADAK - BASERRIAK
ETXEBIZITZAK - TEILATUAK
NABEAK - ERATSIKETA
INPERMEABILIZAZIOA
MARMO LGINTZA - HAR GINTZA

GREMIOEN ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIOA

WWW.ARRETXEGESTION.COM
INFO@ARRETXEGESTION.COM
658 120 215 ZORNOTZA / BIZKAIA

 **Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**



Ertibil erakusketa ibiltariko hamazortzi lanak Iturrin daude ikusgai irailean

Maria Benito Pirizena da ikusgai daudenetariko bat; hilaren 25ean bisita gidatuak egingo dira



Ertibil erakusketa.

ARTEA • A.M.

Bizkaiko sorkuntza lanetan hasi berriak diren gazteei laguntzeko asmoz antolatzen den Ertibil erakusketa Elorrioko Iturrin dago ikusgai. Laugarren aldia da Elorrioko Udalak Foru Aldundiagaz batera Bizkaiko gazteen proposamen artistikoak biltzen dituen erakusketa herrira dakarrena. 37. edizio honetara, 83 artistek 113 lan aurkeztu dituzte, eta horietako hamazortzi

83 artistek 113 lan aurkeztu dituzte lehiara; 18 artisten 18 obrek osatzen dute Ertibil

Bilbon, Ean eta Balmasedan egon ondoren, erakusketa ibiltaria Elorriora heldu da

lanek osatzen dute erakusketa. Tarteetan, Maria Benito durangarraren lan bat dago.

Bisita gidatuak

Irailaren 25ean bisita gidatu bi egingo dira Natalia Suarezren eskutik. Lehenengoa 18:30ean izango da, euskaraz. 19:30ean, gaztelaniaz egingo dute.

Gai librea

Josune Aranguren Zatika
Filosofa



"Zentsura" instituzionala

Gertukook izerditan ikusten ditugu programatzaileak lanean. Jaiak prestatzean, batez ere, gehienen begizko jopuntuan egoten direlako.

Behingoz udako giro etiko-politikoak. Errepikakorrak izan dira argudioak Bilboko jaietako Tanganaren kontzertuaren gaineko eztabaidan. Matxismoa vs. adierazpen askatasuna, zenbait aldaera txikirekin, hala nola giza eskubideak eta diru publikoa. Artista protagonistak, berriz, musikaren balio hezitzailearen gaia mahaigaineratu du, arrakasta txikiz, ene ustetan.

Udalon eginbeharretara etorri behar dugu nahitaez, beraz. Jaiak hezitzaileak izan behar dute? Adierazpen artistikoak batzuentzat mingarriak izan arren, espazio publikoa merezi du artea izateagatik? Denon diruaz ordaindu behar da gehienei gustatzen zaiena/ez zaiena? Publikoaren gustuak gidatu behar du nagusiki programatzailearen hautapena? Plazetan umeen aurrean edozein mezu zabal daiteke adierazpen askatasunaren izenean?

Sinetsi horiek guztiak daukela programatzaileen egunerokoan. Eta gehiago. Administrazioak ildo estrategiko zeharkakoak izaten ditu: euskara eta berdintasuna nagusi dira gaur egun edozein alorretako langile publikoren jardunean. Horiek jarraitzeak gainerakoak zentsuratzea esan nahi du? Hautapen guztiak dakar definizioz hautagai batzuen baztertzea.

Zentsura hitz gogorregia arintasunez erabiltzeko. Hanka-sartzea Tangana jaietako udalaren egitarauan programatzean ikusten dut, ez osteoan.

Iurretako bibliotekak 26 ekintza eskainiko ditu ikasturte honetarako

Irakurzaletasuna da programaren ardatza; urrian Leire Bilbaoren monografikoa egongo da



Zorione Fundazuri, Ziortza Onaindia eta Iñaki Totorikaguena.

BIBLIOTEKA • ARITZ MALDONADO

Iurretako bibliotekak zenbait adin eta kolektibotan sustatu gura du irakurzaletasuna. Iaz edukitako arrakasta ikusita, gazteentzako *Paperezko Hegoak* irakurketa kluba DBH osora zabalduko dute, adibidez. 55 urtetik gorakoentzat eta osasun mentaleko eguneko ospitaleko erabiltzaileentzat ere prestatu dituzte irakurle klubak.

Maker liburutegia

Bibliotekaren beste erronketako bat, hau Maker liburutegi bilakatzeko da. "Artisautzari eta sorkuntzari tarte bat egiteko espazio bat izango da, esperientziak partekatuzeko", azaldu du Ziortza Onaindia bibliotekako arduradunak.

hitz liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1# **BASA**
Miren Amuriza (Elkar)

2# **HEZURREN ERRETURA**
Miren Agur Meabe (Susa)

3# **SAPIENS**
Yuval Noah Harari (Elkar)

katerin ardoak

25 unte **Saltsan**

Eguneko menuak - Asteburuetakoko menu bereziak
Delicatessena - Ardogia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

BIODANZA
ASTEAK

Zabaldu gorputza bizitzara
KLASE IREKIA
ETA DOHAINIK

Irailak 24, asteartea
Txinbixri Ikastolan 18:30 - 20:30

Mentxu Arjonilla
626 661 292
mentxubiodanza@hotmail.com



Estetika gida

anboto

Ile-apaindegia

NUKLEO
ileapaindegia

946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia

IUNIK
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491

Belardenda eta dietetika

OSASYN - ETXEA
BELAR-DENDA eta DIETETIKA
40 urte baino gehiagoko esperientzia

Amaitu dira oporrak.
Pisua jaisteko metodoa.

Hartu hitzordua astelenero
konpromisorik gabe

AHOLKULARITZA PERTSONALIZATUA

Ermodo kalea, 13 (Madalena galeriak) - DURANGO
Tel.: 688 730 694-osasunetxea@hotmail.com
Herboristeria Osasun Etxea

Ile-apaindegia

Salón de belleza
Mª Jesús Luque
UNISEX ILE-APAINDEGIA

Kurutziaga kalea, 9 - DURANGO
946 81 43 89



Osasun - Etxea Ainhoa, Mamen eta Ana

Agur bat gure bezero guztiei!

OSASUN ETXEA lanerako gogoz bueltatu da. Indarberrituta itzuli gara oporretatik, eta dauzkagun zerbitzu berriei buruz informatu gura zaituztegu. Arazo fisiko edo emozionalei aurre egiteko laguntza medikua eskaintzeaz gainera (Bach loreak, eta abar), norbere neurria egindako dieta aholkularitza ere ematen dugu astelehenetan. Zuengatik eta zuentzat.

Eskaintzen ditugun produktu naturalen efektuak izugarriak direnez, dendako erakusmahaietan bertan konpondu litezke osasun arazo txikiak, medikuntzara jo barik. Hau diotsuet, urteetan zehar pilatu dugun esperientziak eta eguneroko erremedio naturalak hala erakutsi digutelako. Egiten duguna sinesten dugu eta ondo egiten dakigula ziurtatu dezakegu. Etor zaitetzte gu ezagutzera Zuen zain gaude



Profesionalik onenak zure zerbitzura!





Leire Arteaga Arana
Bizikume eta Elorrio txirrindulari elkarte kidea
Durango | 1972

“Bizikleta irteera emakume zein gizonei dago zabalik; hori bai, gizonek gure erritmora joan behar dute”

Domekan, bizikleta irteera egongo da Elorrion, emakumeek osatutako Bizikume elkarteak antolatuta. Bizikleta irteeretan elkarrekin parte hartuta, zaletasun hori partekatzen duten emakumei topagune bat eskaintzen die

BIZIKLETA • JOSEBA DERTEANO

Emakumez osaturiko elkarteak 2014an sortu zuten, Nafarroan, eta, harrezkero, Euskal Herri osora hedatu da. Domekarako, bizikleta irteera antolatu dute. Elorriotik irtengo da, eta 09:30ean elkartuko dira, herriko plazan. Bizikumeko eta Elorrio txirrindulari elkarteak Leire Arteaga ekimen honetako antolatzailer nagusienetakoa da.

Zelan animatu zinen ekimen hau antolatzera?

Martxoan, bizikletan ibiltzeko topaketa bat izan zen Lemoan. Parte hartu eta gustatu egin zitzaizkidan. Elorrio txirrindulari elkarteak onak dira probak antolatzen, eta hango arduradun nagusiei Elorrion irteera bat antolatzeko aukera

plazaratu nien. Euren laguntzagaz antolatu dut.

Emakumezkoek zein gizonezkoek parte hartu dezakete, ezta?

Bai. Irteera gizonei zein emakumei dago zabalik; Hori bai, gizonek gure erritmoan joan behar dute. Horixe da baldintza. Horrelako irteeretan gertatu izan zait gizonek eurek erritmoa ipintzea eta ihes egitea. Denok elkarrekin aritzea da

“**Bizikumen egiten den lana zabaltzeko eta inguruko emakumeak elkartera batzera animatzeko aukera izango da**”

kontua. Kirola eginez eta bizikletan ibiliz gozatu gura dugu. Ez da ibilaldi lehiakorra.

Domeka heltzeko gogoz zaude? Urduritasunik sentitzen duzu?

Momentuz, ez, baina seguru nago egunean bertan urduri egongo naizena. Gainera, nahiko perfektionista naiz eta dena behar den moduan egotea gustatzen zait. Zorionez, ekimena bide onetik doa. Izen-ematea zabalik dago eta jendea badabil apuntatzen. Pozik nago.

Gizonek ere eman dute izena?

Bai, gizonak ere badaude.

Errespetatuko ote dute denak batera ibiltzeko baldintza?

Irtzen aurretik argi eta garbi utzi beharko dugu hori. Ez dela irteera lehiakorra, denok batera joatea dela kontua eta beste erritmo batean ibili gura duenak hortxe daukala errepidea bere zain eguneroko. Hala ere, asko ingurukoak eta ezagunak direnez, badakite irteeraren filosofia zein den.

Bizikumek Durangaldean antolatzen duen lehenengo ekimena da. Elkarteak ezagutzera emango du eskualdean.

Horrela da. Bizikumen egiten den lana zabaltzeko eta inguruko emakumeak elkartera batzera animatzeko aukera bat da; bai bizikletan bakarrik dabilenarentzat, bai gizonekin irteten duenarentzat. Emakume asko dabilza bizikletan, eta gure berri badute, beharbada probatzera animatuko dira. Ea zelan irteten den dena.

Zelakoa da ibilbidea?

Denek egiteko modukoa. Batzuek komentatu didate erreparatu apur batez datozela, gogorra egingo ote zaielako, edo aspaldi ez direlako ibili. Baina ibilbidean zehar, Kanpazar igo aurretik Elorrio ondotik igarotzen garenez, gura duena bertan geratu daiteke. Norberak erabakiko du aurrera jarraitu ala bertan amaitu. Joan zen zapatuan, hiru emakume gipuzkoarrek ibilbidea probatu zuten. Sekula ere ez dira hemendik ingurutik ibili, eta domekan beharbada ezingo direnez etorri, euren kabuz probatzea erabaki zuten. Ni

“

Kirola egitea gustatzen zaidanez, orain gehiagotan nabil bizikletan; aurten kilometro asko egin ditut”

ere eurekin joan nintzen. Ibilbide osoa egin zuten eta asko gustatu zitzaizkidan. Ondo egiteko modukoa zela esan zidaten. Aurretik iritzi horiek jakiteak lasaitu egiten du.

Bizikume Nafarroan sortu zen eta urte gutxian asko hedatu da.

Nafarroatik Gipuzkoara hedatu zen eta oraintsu Araban eta Bizkaian sartu da. Elkarteak hazten dabil.

Normalean, Bizikumekoekin irteten zara bizikletan?

Bizkaiko topaketak Bilbo inguruan izaten dira, asko hango ingurukoak

direlako. Ni hemendik irteten naiz normalean, Durangaldetik, Elorrio txirrindulari elkartearekin sarritan. Domekako irteera hemen inguruan dabilzan emakumeak ezagutzeko aukera bat da.

Noiz batu zinen Bizikumera?

Iaz, Bizikumek Nafarroan prestatutako erronka baten berri izan nuen sare sozialetan, eta parte hartzea erabaki nuen. Ondo pasatu nuen eta gustura ibili nintzen.

Bizikletarako zaletasuna betidanik datorkizu?

Txikitik aitagaz ibiltzen nintzen. Lehengusuentzat zahar geratutako bizikleta bat konpondu eta hantxe ibiltzen nintzen. Gerora, lesio bat izan nuen eta kirola egiteari utzi nion. Orain zortzi bat urte, berriro korrika hasi eta oso ondo sentitu nintzen. Beraz, bizikletan ere animatu nintzen. Errepideko bizikleta sinple bat erosi nuen. “Hilean pare bat bider irteteko nahikoa da”, pentsatu nuen, baina kirola egitea gustatzen zaidanez, orain gehiagotan ibiltzen naiz. Egia esanda, aurten kilometro asko egin ditut bizikletan.

Bizikletan eta korrika. Kirola egin zalea zara.

Bai, banaiz. Orain, Donostiako maratoni erdia prestatzen nabil. Horrez gainera, eguenetan palan jokatzen dut eta mendi martxetan ere parte hartzen dut. Azken batean, kirola egitea asko gustatzen zait eta gorputzak ondo erantzuten didan bitartean... aurrera!

Durangoko Kulturalak denboraldiko bigarren garaipena lortu du asteburuan

Amorebieta futbol taldeak, ostera, berdindu egin du Tudelanoren kontra

FUTBOLA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urtebetean bigarren B mailan jokatzeko egon eta gero, denboraldi hasieragaz batera hirugarren mailara itzuli da Durangoko Kulturala. Igor Nuñezen mutilek abuztu amaieran eman zioten hasiera denboraldiari, eta hiru jardunalditan garaipen bi eskuratu dituzte. Durangarrak seigarren postuan daude sailkapen nagusian, sei puntugaz.

Joan zen zapatuan, Kulturalak etxean jokatu zuen, San Ignacioren aurka, eta Tabirara joan ziren zaleek partidu borrokatu eta lehia ikusteko aukera izan zuten. Azkenean, etxeko taldea nagusitu zen, gol biko errentagaz. Zapatuko

garaipenagaz, denboraldi hasierako bolada onari jarraipena eman zioten durangarrek.

Liga ondo hasteaz gainera, Igor Nuñezen mutilak Federazio Kopan Euskadiko faseko txapelkun gelditu ziren eguaztenean, Urdulizi 0-2 irabazita.

Hiru jardunaldiren ondoren, Amorebieta hamabosgarren postuan dago sailkapen nagusian

Amorebietak berdinketa

Bestalde, Amorebieta futbol tal-

deak berdinketa lortu zuen joan zen asteburuan, Tudelanoren aurka. Iñigo Velezen mutilek denboraldiko lehenengo garaipena lortzeko borrokan jarraitzen dute. Orain arte, berdinketa bi lortu dituzte hiru jardunalditan, eta puntu bi batu dituzte. Une honetan, Amorebieta futbol taldea hamabosgarren postuan dago sailkapen nagusian.

Zornotzarrek etxean, Urritzeko futbol zelaian, jokatu dute asteburuan. Atletico Osasuna B taldea izango dute aurkari. Nafarrak laugarren postuan daude sailkapen nagusian.



Denboraldi hasieran Tabirako futbol zelaian ateratako argazkia.

Silvia Triguerosen garaipena lortu du Tor des Geantsen

Lasterketa irabazteaz gainera, korrikalari abadiñarrak aurretik zegoen errekorra apurtu du 330 kilometroko lasterketan

MENDIA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Silvia Triguerosen beste balentria bat egin du eta iazko garaipena berretsi du Tor des Geants lasterketan, 85 ordu eta 23 minutuko denbora eginda. Aurten iaz baino 3 ordu gutxiago behar izan ditu

Europako probarik gogorrenetarikoa —330 km eta 24.000 metroko desnibel positiboa— amaitzeko. Bera izan da aurreneko emakumea helmuga zeharkatzen, eta sailkapen orokorrean 6. tokian amaitu du.



Triguerosen eguen goizaldean zeharkatu zuen helmuga. TOR DES GEANTS

Zadibarko Olazar txapelketa hastear da, pilotari afizionaturik onenekin

Hurrengo egunean jokatu dute lehenengo jardunaldia

PILOTA • J.D.

Hurrengo astean hasi eta abenduaren 31ra arte, afizionatu mailako pilotaririk onenak ikusteko aukera egongo da Zaldibarren, Olazar txapelketaren barruan. 16 bikote arituko dira binaka, eta 16 pilotari lau t'erdian.

Irailaren 19an 21:30ean jokatu dute lehenengo jardunaldirako, partidu bi antolatu dituzte: Altzarrara eta Zabala pilotarien artekoa eta Ibarloza eta Karregal-Madariaga bikoteen artekoa binaka.

Gorka Otaduy binaka

Durangaldeak ordezkaririk bakarra izango du txapelketan: Gorka Otaduy. Pilotari berriztarra binaka arituko da Prieto aurrelari mungiarraz batera. Ez daude faboritoen artean, eta sorpresa ematen ahaleginduko dira. Bikoterik indartsuenen artean, Labaka-Elizegi, Zubizarreta-Sarasa eta Lerena-Uriondo nabarmendu daitezke, besteak beste. Lau t'erdian, Larrazabal, Ruiz de Larramendi eta De la Fuente daude txapela janzteko hautagaien artean.

Asteko kirolaria



MIRIAM ELORZA LIZARRAGA

Tolosa, 1981

“Europako txapelketako domina familiagaz batera ospatzea oso polita izan da”

Abadiñon bizi den Elorzak zilarrezko domina eskuratu du Europako sokatira txapelketan

eta zilarrezko domina etxeratzea lortu du, 560 kiloko kategorian.

Europako txapelketan zilarrezko domina eskuratu berri duzu. Nola joan ziren tiraldiak?

Tiraldi gogorrak izan ziren. Gaztedi taldeak hainbat baja izan zituen udan, eta uztailan ea eurekin entrenatzen hasi nintekeen galdetu zidaten, txapelketa prestatzeko asmoz. Beraz, kontuan hartuta hi-

le eta erdi entrenatuta joan naizela Europako txapelketara, tiraldiak oso gogorrak izan ziren. Hala ere, gogotsu irten genuen finalera. Gure asmoa Txina Taipeiiko taldea garaitzea zen, talde gutxiak lortu izan dutena, hain zuzen. Ahalegindu arren, ez genuen lortu. Hala ere, pozarren gaude egindako lanagaz. **Itxarondako emaitza izan da?**

Egia esan, ez. Euskadiko txapelketan, Gaztediko neskek bakarrik

daude, eta, beraz, zein mailatan geunden ondo jakin barik joan ginen Europako txapelketara. Gainera, kontuan hartu behar da talde zehatz bat eramatea pentsatuta zeukatela hasieran, eta, azkenean, beste tiralari batzuek osatutakoa joan gara.

2018ko otsailetik hona lehiatu barik egon zara, eta zure itzulerako txapelketan zilarrezko domina lortu duzu, semea eta senarra hantxe

zirela. Nolako izan da domina eurekin ospatzea?

Denboraldia udan izatera, familia-kook oporrik barik geratu ginen, eta Julen senarrari esan nion aukera polita izan zitekeela umeagaz egun batzuk pasatzeko. Beldur apur bat ere bagenuen, biok parte hartu behar genuelako, biok batera tiratzen ibili behar genuelako, umea hantxe zela. Baina esan beharra dugu Gaztedi taldea oso ondo portatu dela gugaz, eta asko lagundu digutela umeagaz. Esperientzia oso polita izan da, izugarria. Europako txapelketako domina familiagaz batera ospatzea oso polita izan da. Ikaragarria, errepikatze modukoa, zalantzarik barik.

Miriam Elorza Europako sokatira txapelketa lehiatzen aritu da asteburuan. Gaztedi taldeagaz aritu da Irlandan jokatu den txapelketan,

MENDI LASTERKETA • JOSEBA DERTEANO
Sorginen Lasterketa osasuntsu helduko da zapatuko 12. aldira. Parte-hartzeari dagokionez, inoiz baino korrikalari gehiago egongo dira Axpeko irteera puntuan. 300 lagunentzako tokia dago, eta abuztu amaieran heldu ziren muga horretara. Aurten, lehenengoz bete da izen-emateen zerrenda.

Beti ez du izan gaur egun duen izena. Orain 11 urte sortu zenean eta hasierako aldi haietan, mendi lasterketen egutegiko erreferentetako bat izan zen. Gerora, ostera, beherakada izan zuen eta, apurka, erreferentzialtasuna galtzen joan zen. Parte-hartzeak ere beherantz egin zuen urterik urtera. Egoera zein zen ikusita, Durango Kirol Taldeko antolatzaileek ibilbidea aldatzea erabaki zuten 2016ko aldiari begira. Amu erakargarri bat sartu zuten ibilbidean: Anboto gaina. Baina urte hartako parte-hartzaileak gogoagaz geratu ziren, eguraldi txarraren ondorioz ibilbidea moldatu beharra egon zelako, Anboto puntatik igaro barik. 2017an ere ezin izan zen tontoretik igaro. Baina iaz bai, iaz Anboto gaina zapaldu zuten korrikalari guztiek. "Jendea pozik geratu zen. Iazko askok errepikatu egin dute eta beste askok izena eman eta probatzea erabaki dute. 25-30 bat laguneko itxarote-zerrenda bat ere izango dugu",

Sorginen Lasterketak inoizko parte-hartzerik handiena izango du, 300 korrikalarigaz

Ibilbidean Anboto gaina sartu zutenetik, interesak gora egin du. Izen-ematea orain aste bi bete zen eta hainbat korrikalari zain egon dira itxarote-zerrendan



Aurten lehenengoz bete da izena emateko zerrenda.

adierazi du Durango Kirol taldeko Garazi Sampedrok.

Bihar izango da mendi lasterketa, Axpen. 10:00etan hasiko da. Korrikalariek 1.300 metroko desnibel positiboari aurre egingo diote, 18 kilometrotan. Irabazteko faboritoen artean, Nerea Eugenia Iturriaga, Maider Fraile eta Onditz Iturbe nabarmendu daitezke emakumeetan, eta Imañol Goñi, Asier Larruzea, Aitor Ajuria eta Asser Alonso gizonetan.

Umeentzako, 'Sorgin Txiki'
Lasterketaren harira, Asuntze Mendi Taldeak umeei bideratu-

Korrikalariek 1.300 metroko desnibel positiboari aurre egingo diote, 18 kilometrotan

Faboritoen artean, Maider Fraile aipatu behar da nesketan, eta Asier Larruzea mutiletan

tako Sorgin Txiki izeneko mendi buelta antolatu du bihar goizerako. 09:30ean irtengo dira, Axpeko plaza-tatik. Amaieran luntxa egongo da denentzat.

Jokaldia

Iñaki Iza
Zarazua
Pilotari ohia



Olaizola izan nahi dut

Irailaren 8an Bermeon jokatu zen jaialdia bukatu ondoren, pilotalekutik irteten ari nintzela, honako hau entzun nion hamar urte inguruko ume bati: "Ama, nik Aimar Olaizola izan nahi dut!"

Aimarrek bere enegarren erakustaldia eman berri zuen eta, horrela, uda bukaerara joko maila ikusgarrian iritsi dela erakutsi zuen berriz.

Aimar Olaizolak 39 urte ditu (40 beteko ditu azaroan) eta 21 urte baino gehiago daramatza goi mailan jokatzeko. Ezagun da goizuetarra historiak eman duen pilotari handienetakoa dela, palmaresari begiratzea baino ez dago horretaz ohartzeko, baina bizpahiru lesio larri ere gauditu behar izan ditu bere ibilbide profesionalean zehar. Azkena binakako pilota txapelketan izan zen, Jon Ander Albi-suk eta berak final erdiatarako sailkapena puntu bakarrera zutenean lau jardunaldiren faltan. Ia lau hilabete errehabilitazio gogorrean pasatu ondoren, udako denboraldiaren atarian itzuli zen kantxetara. Itzulera zaila izan zen, bere ohiko mailatik oso urruti jokatutako partiduekin, eta, ondorioz, hainbat zalantza sortu ziren zaleen artean. Guztiok dakigu, normalean, zenbat eta urte gehiago izan, lesio baten ondorengo errehabilitazio prozesuak zailagoak eta konplexuagoak izaten direla. Baina lana erruz egin ondoren, Aimar Olaizolarik onena ikusten ari gara kantxetan berriro ere.

Esan bezala, Olaizolaren palmaresak gaur egun den pilotari handia irudikatzen du. Baina, nire ustez, garrantzitsuagoak dira Aimar eredu bihurtzen duten ebidentziak eta, batez ere, horientatik nahiko nuke nik ere Aimar Olaizola izan.

Biak-Bat futbol talde berriak bere lehenengo partidua jokatuko du bihar, Zaldibarren

Haur kategoriako zortzi talde batuko dituen torneo batean izango du estreinaldia



Domekan aurtengo taldeen aurkezpena egingo dute Zaldibarko futbol zelaian.

FUTBOLA

• JOSEBA DERTEANO
Biak-Bat nesken futbol klub berriak bere ibilbideko lehenengo partidua jokatuko ditu zapatu honetan. Zaldibarko futbol zelaian antolatutako torneoan izango da.

Biak-Bat talde berriaz gainera, haur kategoriako futbol 7 torneoak Ezkurdi, Arratia, Amaikabat, Aurrera, Basauri kimuak, Betiko eta Mungia taldeak batuko ditu. Lehenengo partidua 09:00etan hasiko

dira, eta torneoak 14:00 inguruan amaituko da. Partiduak ikusteko sarrerak euro bi balio du, eta sarrera eskuratzen duten guztiok urdaiazpiko hanka baten zozketan parte hartuko dute.

Sarrerak euro bi balio du, eta sarrera erosten dutenen artean urdaiazpiko hanka bat zozkatuko dute

Hurrengo egunean, domekan, bai Biak-Bat klubak, bai Zaldubarko euren aurtengo taldeen aurkezpen ofiziala egingo dute Zaldibarko Solobarria futbol zelaian.



clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{ Muruetatorre, 2C blokea, beheka - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RP5: 145-13

Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
 F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
 www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
 INMOBILIARIA
 Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
 del Duranguesado
 Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
 www.inmoduranguesado.com
 inmoduranguesado@gmail.com

Fernando Uribe
 AGENCIA INMOBILIARIA
 Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
 Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

//AUKERA

BERRIZ: 155 m². 3 solairu igogailuagaz. 4 logela, 3 komun, sukalde-jangela eta egongela tximiniagaz. Estudioa. Trastelekua. **160.000€.**
TABIRA: 3 logela, komuna, sukaldea, despentsa eta egongela. Terraza. Ganbara. Eguzkitsua. Kanpora ematen du. **185.000€.**
DURANGO: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Berogailua. Igogailua. **130.000€.** NEG.
KURUTZIAGA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela handia. **99.000€.**
IURRETA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. 1. mailako materialagaz berriztatua. **97.500€.**
ZALDIBAR: 3 logela. Garajea. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatua. **98.000€.**

//ETXEBIZITZAK SALGAI

TABIRA: Duplexa. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 132 m²-ko terraza. Etxabe gardena, 52 m²-koa, bainugela eta guzti. Garaje itxia.
KURUTZIAGA: 80 m². 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. **186.000€.**
ARTEKALE: Erdigunean. 83 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Igogailua. **178.000€.**
GAZTELUA: Lursaila. 26.044 m². 6 partzelatan banatua. Fruta-arbolak ditu (600 sagarrondo, zenbait partzelatan).
MATIENA: Laubideta. 3 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ikuspegiekin. Eguzkitsua.
J.A. AGUIRRE: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. **250.000€.**
TROMPERRI: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ganbara eta garaje itxia. **292.000€.**
IURRETA: 2 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Bizitzen sartzeko prest. Eguzkitsua. **115.000€.**
ERRETENTXU: 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Garajea aukeran. **240.000€** NEG.
ATXONDO: 85 m². 3 logela, komuna eta egongela. 2 terraza. Garajea. Txokoa. Berriztatua. **148.000€.**
SAN INAZIO: 100 m². 3 logela, 2 komun, horma-armairuekin, sukalde handia eta egongela handia. Terraza. Garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. ALOKAIURUA, EROSTEO AUKERAGAZ. **256.000€.**
ABADIÑO: Familiabakarra. 484m². 1.000 m²-ko lursaila eraikitze aukeragaz.
ERDIALDEAN: 100 m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela handia. Garajea aukeran. **229.000€.**
ERROTARITXUENA: Apartamentua. Etxe osoak kanpora ematen du. Terraza. Garaje itxia. **220.000€.**
IURRETA: 111 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela handia. 12 m²-ko terraza. Garajea eta trastelekua. **276.000€.**
BERRIAK ESTREINATZEKO: 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Terraza. Ganbara. Garajea aukeran. **153.000€.**
BERRIZ: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. **65.000€.**
//LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIURUAN
TABIRA: 30 m²-ko garajea. Argia eta ura ditu.
ASKATASUN ETORBIDEA: 8.000m²-tik aurrera, garajeak.
ABADIÑO: 160 m². Egokitua. Dena erakusleihoa 2 kaletan. **185.000€**
ABADIÑO: 75m². **75.000€.**
ZALDIBAR: Salgai. Ganbara zabala. Egokia bulegoa edo estudioa egiteko. 24-35m². Ekonomikoa.
F.J. de ZUMARRAGA: Aukera. 114.000€.
 SALMENTA. **150.000€.** Negoziagarria.

//ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Askatasun Etorbidea. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela.
DURANGO: Antzo Estegiz. 3 logelako pisu ederra. Sukalde berria, komuna eta egongela. Ikuspegi ederrak.
DURANGO: Eraikiberrria, 2 eta 3 logela. Azkeneko 3 etxebizitzak salgai. 178.000€-tik hasita.
DURANGO: Komentukalea. 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Eguzkitsua. Igogailua eta gasa.
DURANGO: Jose Miel Barandiaran. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. Durango erdian.
DURANGO: Komentukalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.
DURANGO: Hegoalde kalean. Eraikin txikia. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.
BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. MERKEA.
IURRETA: Maspe kalea: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea balkoiagaz. Eguzkitsua. Igogailua.
ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.
ZALDIBAR: 3 logela, bainugela, sukaldea eta egongela balkoiagaz. Berriztatua. Trastelekua.

//LURSAILAK SALGAI

GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.
ABADIÑO: 1.000 m²-ko lursaila salgai. Bifamiliarra eraikitze baimenagaz. Zonalde egokia.
IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.
ABADIÑO: Bifamiliarra eraikitze lursaila, 1.000m². Informazio pertsonalizatua.
AMOREBIETA: EUBA: Txalet bifamiliarra eraikitze lursaila. 3.000 m²-ko lursaila.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO: Bifamiliarra salgai. 4 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. Garajea.
MAÑARIA: Baserrria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.
ELORRIO: Aldape auzoa. Baserrria berriztatze. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 125.000€
ATXONDO: Baserrri ikusgarria Martzaa auzoan. 15.000 m²-ko lursaila. Teilatua berriztuta. Zonalde egokia.
MENDATA: Lamikiz auzunea. Baserrri bifamiliarra. Berriztatze. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.
DURANGO: Eraikin txiki ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatze.
BERRIZ: Baserrri ederra, Murgotioko zonaldean. 3 hektareako lursaila.

//BULEGOAK ALOKAIURUAN

ABADIÑO
 40 m²-tik gorako bulegoak. 350€-tik hasita. GARAJE ITXIAK SALGAI
 Durango, garaje itxiak salgai 25.000€-tik aurrera.
//LOKALAK ALOKAIURUAN
Alde Zaharrea, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.
//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com

DURANGO 4 logela
 77 m²
ANTSO ESTEGIZ: Halla, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Gas naturaleko berogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. Bizitzen sartzeko moduan
139.000€

DURANGO 2 logela
 50 m²
JUAN DE ITZIAR: 50 m². 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Gas naturaleko berogailua. Ikuspegiekin.
130.000€

DURANGO 3 logela
 3 komun
DURANGO: Kalebarria. 3 logela, egongela, sukalde jantzia, eskegitokia eta 3 komun. Ganbara.
129.000€

DURANGO 4 logela
 80,76 m²
ARAMOTZ: 80,76 m². 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Berriztatze.
116.000€

ZALDIBAR 3 logela
 59 m²
ZALDIBAR: komuna, egongela eta sukaldea. Balkoia. Lursaila (40 m² inguru). Eraikin txiki bat du (4 m²) oilotoki edo estalpe moduan erabiltzeko.
87.000€

MATIENA 2 logela
 51,9 m²
MATIENA: 51,9 m². 2 logela, komuna, egongela eta sukalde jantzia. Igogailua jartzeko proiektuagaz. 12,40 m²-ko ganbara.
73.600€

//DURANGO

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **180.000€** / E.E.Z=F
ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. **160.000€** / E.E.Z=E
ERRETENTXU: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000€** / E.E.Z=E Garaje itxia aukeran
EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, 2 bainugela eta igogailua.. **260.000€** / E.E.Z=E.
EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela eta igogailua. LEHEN 321.500€ / ORAIN **300.000€** / E.E.Z=F
KALEBARRIA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta bainugela. **82.000€** / E.E.Z=G
KURUTZIAGA: 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. **99.000€** / E.E.Z=Bidean
MONTEBIDEO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Igogailua. **230.000€.** / E.E.Z=F
SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitze 600m² ko lurzoru. **640.000€**
ZEHARKALEA: 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. LEHEN 150.000€ / ORAIN **130.000€** / E.E.Z= E

//ABADIÑO

ARLOZABAL: 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000€** / E.E.Z=Bidean
ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea, 3 bainugela, terraza, garajea eta trastelekua. LEHEN 342.576€ / ORAIN **278.000€** / E.E.Z=E
ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainugela. Trastelekua eta garajea. **235.000€** / E.E.Z=E

//BERRIZ

BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000€** / E.E.Z= F
BILBO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela-jangela eta 3 komun. Balkoia. LEHEN 195.000€ / ORAIN **160.000€** / E.E.E=E
ERROTATXO KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. LEHEN 95.000 € / ORAIN **85.000€** E.E.Z=E

//IURRETA

FAUSTE: Baserrria lurzoruagaz, **220.000€** / E.E.Z=G

//MATIENA

TXINURRISOLO: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta bainugela **200.000€** / E.E.Z=F

//OTXANDIO

ELIZABARRI: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta lonja **106.000€** / E.E.E=F

OLETA AUZOA: Banakako etxebizitza. 460 m² 3 solairutan banatuta. 4 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Garajea eta txokoa. 5.000 m²-ko lursaila. **480.000€** / E.E.Z=E

//ELORRIO

BERRIOTXOA: 3 logela, sukaldea, egongela, jangela eta bainugela. **160.000€** / E.E.Z=E

//BERRIAK

//BERRIZ

LEARRETA MARKINA: 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. **102.000€** / E.E.Z=E



Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean

HIGIEZINAK
TEKNOLOGIA
LANA/NEGOZIOAK
DENETARIK
IBILGAILUAK
HARREMANAK
AISIA/KIROLA
FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK SALDU

Abadiño. Muntzaratz auzoan, 90 m²-ko etxebizitza trastelekuarekin salgai Arlozabal kalean, 3 logelakoa. Tel.: 665 73 31 51

ETXEBIZITZAK EROSI

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Zaldibar. Zaldibaren herri erdigunean, 3 logelako pisua, oso eguzkitsua, igogailuarekin. Tel.: 616 24 30 53

ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

Elorrio. Elorrioko bikote arduratsua bat gara eta alokairuzko pisu bila gabiltza (Elorriortan bertan). Tel.: 688 64 06 04

LAN ESKARIAK

PERTSONAK ZAINDU

Lan bila nabil pertsonak zaintzen.

Mutil nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu deitu Tel.: 612 53 93 89

Lan bila nabil pertsonak zaintzen.

Emakume nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu, deitu Tel.: 632 35 60 66

LAN ESKAINTZAK

PERTSONAK ZAINDU

Barneko langile gisa lan bila.

Barneko zein kanpoko langile gisa lan bila ari naiz. Orduka ere lan egiteko prest. Adinekoak edo haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu Tel.: 643 72 71 98 telefono zenbakira.

Pertsona nagusiak zaintzeko.

Neska euskalduna naiz eta

esperientzia daukat zaintzaile gisa. Eusko Jaurlaritzaren habilitazioa ere badut. Pertsonak zaintzeko prest nago, etxean, ospitaleetan, edonon... ordu solteak lanaldi osoa... Tel.: 658 03 08 36

Mallabian pertsona bat behar dugu andre bat zaintzeko.

12:00etatik 19:00etara Mallabian andre bat zaintzeko pertsona bat behar dugu. Euskaraz jakin dezala. Mallabiko edo Ermukoa bada hobeto. Tel.: 695 78 78 99

Umeak zaintzeko eta klase partikularrak emateko prest.

0-12 urte bitarteko umeak zaintzeko klase partikularrak emateko prest nagoen 24 urteko neska bat naiz. Haur Hezkuntzako unibertsitate gradua bukatzen ari naiz eta esperientzia handia daukat mundu honetan. Elorriortan edo ingurunean lan egiteko prest nago. Interesatuak idatzi Whatsapp bat edo deitu Tel.: 692 71 66 46 zenbakira.

ANBOTOK BEHAR DU DURANGALDERAKO KAZETARIA (lanaldi erdia)

ESKATZEN DA:

- Kazetaritza, komunikazio edo pareko unibertsitate titulua.
- Indesign eta Photoshop programak erabiltzen eskarmentua izatea.
- Interneteko jakintza: sare sozialak, webgintza...
- Gidabaimena

KONTUAN HARTUKO DA:

- Irudiak grabatu eta editatzeko edota argazkiak ateratzeko gaitasuna.
- Lan eskarmentua komunikazio arloan.
- Durangaldekoa izatea.

Curriculumak aurkezteko epea: irailak 16ra arte

Nora bidali: astekaria@anboto.org

anboto
komunikabideak

lan eskaintza

BERBARO ELKARTEAK Langile bat behar du

Lanpostuaren ezaugarriak:

- Haur eta gazte arloko teknikaria: Proiektuak kudeatu eta koordinatzea.
- Lanlekua: Berbaro elkartearen egoitza, Durango.
- Urrian lanean hasteko.
- Lanaldi osoa.

Eskatzen dugu:

- Euskara maila ona. Gutxienez, EGA edo 3HE.
- Durangaldean bizitzea eta eskualdea ezagutzea.
- Gida-baimena eta auto propioa izatea.
- Haur eta gazte arloa ezagutzea eta arlo horretan lanean aritu izana.
- Proiektuak kudeatu eta erabakiak hartzeko gaitasuna.
- Taldean lan egiteko gaitasuna.
- Lan egiteko gogoia eta motibazioa.

Curriculum eta motibazio gutuna bidaltzeko: berbaro@berbaro.eus
Curriculum aurkezteko azken eguna: irailak 19



MIKEL ITURRIA

ASTE HONETAN

MIKEL LOSADA


DOAN

Ttap euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero dohainik zure mugikor edo tabletean.



ttap
Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

Informazio gehiago:
ttap.eus



DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n

Botikak

BARIKUA, 13 - 09:00-09:00

IRIGOIEN
Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 14 - 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

DE DIEGO Intxaurren 22. - **DURANGO**

JAIO-ABENDIBAR
Errekakale 6. - **ELORRIO**

EGUREN, ISABEL
Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 15 - 09:00-09:00

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 16 - 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 17 - 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 18
09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurren 22. - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 19 - 09:00-09:00

ETXEBARRIA
Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU
GOZATEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.



Zorionak, **Elene**, familiaren eta lagunaren partez. Maite zaitugu!



Zorionak, **Anek** 7 urte egin zituen irailaren 4an. Zorionak etxekuen partez!



Zorionak, **Roberto**, denon partez! Cava zure kontu!



Zorionak, **Ixone!** Ondo paseu eta beste asko bete.



Gure **Paule** maiteak 8 urte egin ditu. Orain arte bezala jator eta kementsu jarraitu dezala.



Irailaren 11n, **Jonek** 13 urte egin zituen. Musu handi bat aitatxoren, amatxoren eta denon partez.

Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 30° / 17° ☁️

ASTELEHENA 🌧️ 28° / 18° ☁️

EGUAZTENA 🌧️ 27° / 19° ☁️

DOMEKA 🌧️ 30° / 18° ☁️

MARTITZENA 🌧️ 29° / 16° ☁️

EGUENA 🌧️ 29° / 17° ☁️

Urrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

CERAMICAS
MACOBER
www.macober.com

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER
Chimeneas

ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

R.P.S. 214/06
A. Urreta
pedagogoa

Ainara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

“Gurago dut amuarraina erre kara bueltatu; hurrengoan, handi goa izango da, eta zail goa arrantzatzeko”

Abuztuan Txekiar Errepublikan egindako Euli Arrantzako Munduko Txapelketan brontzeko domina lortu zuen gazteen mailan, Espainiako selekzioagaz. Iaz, Espainiako txapelketan zilarrezko domina bi eta Euskadikoan urrea irabazi zituen

Mikel Jimenez Zenarruzabeitia
• Zornotza, 2000
Euliagaz arrantzatzen du

Berba bitan

Arrain bat
Amuarraina

Pelikula bat
Sin salida

Bidaia bat
Txilera (Patagoniara), arrainak arrantzatzera

Arrantzatzeko toki bat
Leitzarán

Abesti bat
Denerik entzuten dut, baina...
‘Volar’

Jateko, arraina ala okela?
Biak. Beharbada, gurago okela, baina arraina ondo presatuta badago, oso gustura jaten dut

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Mikel Jimenezek euliagaz arrantzan egiten du. Pazientziagaz hartu beharreko jarduna dela onartu du. Aurten, nagusiekin lehiatzen hasi da eta Espainiako txapelketan ondo sailkatzea du erronka. Badaki maila altua dela, baina ikasteko ere baliogarria zaiola uste du zornotzako gazte honek.

Euliagaz arrantzan egiten duten baka- rrenetarikoa izango zara inguruan.

Bai. Txapelketetan, gazteen mailan, beste bi ibiliko dira Bizkaian asko jota. Nagusietan, hiru edo lau. Gipuzkoan zaletasun handi goa dago.

Eta nolatan hasi zinen zu?

Roberto Estremianaren eskutik hasi nintzen, 14-15 urte gaz. Urtero Txilera joaten da arrantzatzera, Patagoniara, eta berak erakutsi didakidan guztia. Aitak aurkeztu zidan. Espainiako hiru txapelketatan ibili naiz harrezkero.

Familiatik dator kizu zaletasuna?

Ez. Inork ere ez daki nondik dator kidan. Osaba batek arrantzatzen du, baina aitari ez zaio batere gustatzen. Are gutxiago lehiaketetako estresa eta presioa. Nigaz etorri zen Txekiara, eta behin hartu zuen kainabera....

Non arrantzatzen duzu?

Gipuzkoan, batez ere. Andoain eta Leitzarán aldera joaten naiz. Bizkaian ez dago ia amuarrainik. Maila altua dago Gipuzkoan. Asko erakutsi didate han. Ia astebururo joaten naiz. Beste arrantzale batzuekin geratzen naiz eta elkarrengandik ikasteko aukera dugu.

Bizkaian errekak ez daude osasuntsu?

Ez. Gainera, ez dago amuarrainik eta ez da birpopulatzeko neurri-

rik hartzen. Gipuzkoan ardura tsuagoak dira.

Zer du arrantzatzeko era honek?

Artea da. Latigo modalitatean arrantzatzen ditugu amuarrainak, eta ez ditugu etxera eramaten. Arrantzak lasaitasun handia ematen dit. Er laxatzeko unea da, txapelketetan tentsioa eta presioa izaten ditugun arren.

Batzuek ez dute ulertzen hil bako arrantza.

Nire amamak ere ez. Nik neuk gurago dut amuarraino erreka- r a

bueltatu; hurrengoan, handi goa izango da, eta zail goa arrantzatzeko. Amuarrain hori zenbat eta gehiagotan arrantzatu, orduan eta finago ibili beharko dut.

Zein da teknika?

Errekako intsektu txikiak imitatuz arrantzatzen dugu. Harrien azpitik ur gainera igotzen dira, eta mugimendu hori imitatzen dugu euliagaz, ahalik eta erarik naturalenean, amuarraina konturatu ez dadin. Dena eskuekin egiten dugu, karreterik barik. Kontu handi goz arrantzatzen dugu. Teknika bera gaz harrapakariak ere arrantzatu daitezke. Marrazoak, adibidez. Kasu horretan, arrainak imitatuko genituzke.

Lasaitasuna eta bakardadea arrantzagaz loturiko berbak dira.

B a i .

Baina, askotan, lagunagaz joan naiz. Hala ere, bakarrik arrantzantzea ere gustatzen zait, kontzentratuta, erreka bakarrik entzunda.

Bereziki gogoan duzun amuarraina...

Munduko txapelketan, azken txandan arrantzatutakoa.

Ordubete ezer ere ikutu barik egon eta gero, azken ordu erdian 45 zentimetroko amuarraina harrapatu nuen, erreka koa.



Lau- hortza

Markel Sanchez Behargina



Ekiteaz

Azken egunotan ekin diogu askok kurtso berriari. Udan opor- rarak edukitzeko aukera izan dugunok lanera bueltatu gara aparkatuta utzitako proiektu eta lanei berriro ekiteko.

Egunotan ekin diote ere dan- tza taldeek, prekarietatearen aurkako kanpainak egiten dituztenek, herri-komunika- bideek, langileen eskubideen alde borrokatzen direnek, jai herrikoiak antolatzen dituzte- nek, kirol taldeetakoek, mugimendu feministako taldeetan dabiltzanek, gaztetxe-koek, euskararen alde hainbat es- parrutan lan egiten dutenek, antzerki konpainiek, nazio askapenaren alde dabiltzanek, musika taldeek. Ekin diote ere behar bereziak dituzten familiekin lanean dabiltzanek, bertso eskoletakoek, munduko beste herri batzuekin elkarta- sun sareak sortzen dituztenek, margolariak, preso politikoen askatasun eta eskubideen alde dabiltzanek, dorreak eraiki beharrean herri galdeketa- ren alde daudenek, idazleek, au- zoa hobetu eta alaitzeko auzo elkarteetan lanean dabiltzanek, kultur gune eta antzokietan dabiltzanek, kontulariek.

Ekingo diote, bai, hori direla- ko: ekintzaileak. Inongo interes pertsonal eta ekonomiko barik lanean dabiltzanak, herri eta gizarte hobe eta alaiago baten alde, lan boluntario eta mili- tantea egiten dutenak. Gure herriko onena dira, eta zaindu egin behar ditugu. Euren lana txalotu eta eredu moduan ipini.

Hau diot beste leku batzue- tatik tematuta daudelako ekintzaile edo enpreddore deitzearekin dirua irabazte- ko asmoz enpresak sortzen dituztenei. Eta ezin diegu utzi, ekitea gauza garrantzitsuegia delako.

afede ko 150€-ren 2 bonuen



zozketako irabazleak:

Miren Trueba eta Izaskun Dominguez